

DROGETEN

ITTURRI

Ermuko eta Mallabiko aldirakaria
2023ko AZAROA · 327 zenbakia

**Óscar Blanco,
argazkilaritza afizioa
baino gehiago denean**



IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Adua Aho Kirurgian,
Periodontzian, implantologian.
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgian.
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikan Diplomatu.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.
Hortz-Estetikan Diplomatu.
Autran Institutua. Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Doktorea.

Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik **22:00**etara
Zapatuetan:
10:00etatik **14:00**etara

Irribarreetan adituak

Etor zaitez gu ezagutzera

Zure beharretara egokitutako finantziazio-planak

JARRAI IEZAGUZU

f Facebooken: Clínica Dental Irazabal **www.clinicairazabal.com**



IRAZABAL
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1 esk. - **20600 EIBAR**
Tel.: 943 20 85 52 - **www.clinicairazabal.com**

Bertoko kantuak Herritarren ahotik

Gaia: Koplak.

Aitxa Periko

(Entzuteko: www.alboka.es)

Aitxa Periko
seme Juaniko,
zer daukek afariteko?
Orixo-azak gozo-gozuak
arto beruakin jateko.



ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale zeharbidea 2, 1.
247 posta-kutxa
943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.eus

ERREDAKZIO TALDEA:

Estibalitz González,
Nahia Ruiz Albizuri
eta Dorleta Vidal.

KOORDINAZIOA

ETA MAKETAZIOA:

Dorleta Vidal.

AZALEKO ARGAZKIA:

Óscar Blanco.

LAGUNTZAILEAK:

Begoña Fernández,
Antonio Hernández 'Cuco',
Patxi López, Valentin Mugarza
eta Ongarai Eskola.

ARGAZKIAK:

Aiama taldea,
Óscar Blanco,
BMW Fundazioa,
Roberto García,
Estibalitz González,
Mikel Madarieta,
Valentin Mugarza,
Jone Redondo,
Nahia Ruiz Albizuri,
Ongarai Eskola eta Dorleta Vidal.

PUBLIZITATEA:

943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Maren Aguirre, Manex Prieto
eta Piedi Eizagirre.

TIRADA:

2.425 ale.

ISSN:

1133-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/1994.

*Drogeteniturrik ez du bere gain
hartzen aldizkarian adierazitako
iritzien erantzukizunik.*

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



ERMUKO UDALA



MALLABIKO UDALA



HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAIA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Jone Redondo Eizagirre · Mexiko

“Lehenengo egunetik ezagutu nituen pertsonekin oso harreman estua sortu dut”

Lau hilabete daramatza Jone Redondo ermuarrak San Luis Potosin (Mexikon), eta urtebete emango du bertan Ingurumen Zientziak ikasten. Gustura dago Potosin, nahiz eta etxeokak faltan botatzen dituen.

Testua NAHIA RUIZ ALBIZURI

Erabaki zaila izan zen Mexikora joatea?

Erabakia oso arin hartu nuen, ez nuen espero. Gogorazten dut klaseko lagun guztiei mezu bat heldu zitzaizela nora joango ziren esateko; nik ez neukan mezurik, eta pentsatu nuen lehen gauza izan zen ez zitzaidala ezer tokatu. Baina nire kabuz begiratzea erabaki nuen, eta hemen onartuta nengoela ikusi nuen. Ez dut gezurrik esango: hasiera batean asko pentsatu nuen hona etorri edo ez, eta ez nengoen oso seguru, baina uste dut erabakirik onena izan dela.

Zerk sortzen zizkizun zalantzak?

Nire kabuz hainbeste denbora etxetik kanpo egon behar izateak. Banekien esperientzia bikaina izan-


go zela, baina beldurra ematen zidan inor gabe hain urrun egoteak.

Nola imajinatzen zenuen San Luis Potosi?

Ez neukan ideia zehatz bat, baina oso leku katolikoa zela pentsatzen nuen hasiera batean, Interneten argazkiak begiratzean elizen irudiak bakarrik agertzen zirelako. Baina ez, guztiz kontrakoa da.

Zerbaitek harritu zaitu?

Gauza askok harritu naute, baina gehien moduak. Hemen ez dago ia trafikoa seinalerik, zebra biderik edo semafororik, gutxienez ni bizi naizen lekuan. Hirian zehar kale batera joatean, kale horretan aparkatuta dauden kotxeen norabidea begiratu behar duzu. Oi-





nez bazoaz errepidea zeharkatzeko daukazun aukera bakarra da kotxeak pasatzen ez direnean, ze kotxeak ez dira gelditzen.

Nolakoa da bertako jendea?

Jendea oso jatorra da, hasieratik konturatu nintzen horretaz. Dena den, askok esaten digute jatorrak dirrela gurekin kanpotarrak garelako... Gainera, San Luiseko herritarrak desatsegintzat dituzte Mexikon: inguru honetan ezagutzen duzun norbaiti ez agurtzeari "el potosinazo" esaten diote, hiri honetakoek askotan egiten dutelako hori.

Zein da janari tipikoa?

Hemengo janari tipikoa Mexikoko ohiko janaria da: takoak, *quesadillas* eta horrelakoak. Baina badira hain ezagunak ez diren gauzak ere, eta niri gehien gustatzen zaidana *chilaquiles*ak dira: arto tortilla, gazta, tomate saltsa eta arrautzak dituen gosaria.

Hizkuntzari dagokionez, gaztelaniaz aparte beste-rik egiten da?

"Etxekoak botatzen ditut faltan, eta ia egunero hitz egiten dut haiekin, batzuetan zer kontatu ez izan arren"

"Beste urte erdi geratzeko proposamena egin didate eta ez dut ezetzik esan"



Hirian gaztelaniaz hitz egiten da, baina badaude lekuak non beste hizkuntza batean hitz egiten duten. Gehienetan berezko hizkuntzak dira gaztelaniarekin nahastuak, baina oso zaila da ezer ulertzea.

Zerbait botatzen duzu faltan?

Gauza asko: familia, lagunak, jaiak... Gurasoekin ia egunero hitz egiten dut, nahiz eta kontatzeko ezer ez eduki, eta lagunekin noizbehinka, gauzak kontatzeko. Askotan etxean egotea botatzen dut faltan, nire logelari, baina gehien botatzen dudana faltan gurasoek prestatzen duten janaria da.

Gustura zaude?

Oso gustura, zorte handia izan dut hemengo laguntik. Lehenengo egunetik ezagutu nituen pertsoekin harreman oso estua sortu dut.

Noiz zatoz Ermura bueltan?

Hasiera batean urtarrilean itzuli behar nintzen, baina unibertsitateek (EHUk eta hemengoak) beste urte erdi bat geratzeko aukera eman didate, eta ez dut ezetzirik esan.

“Markos Gimenoren jenialtasuna erreibindikatu nahi dut liburuarekin”

Joseba Sarrionandia · Idazlea



Markos Gimenek sortutako palindromoetan inspiratuta, Joseba Sarrionandia idazleak hitz-joko berezi horien bilduma kaleratu berri du. *101 / Letrakartel* izenburu bipalindromikoarekin, Markosen ordenagailuetan eta koadernoetan pilatutako lanak liburu bihurtuta eskuratu ahal dira, auzolan ederrari esker. Idazle iurretarrarekin egon gara ermuarraren lan eta ekarpen artistikoaren gainekoak gertutik ezagutzeko.

Testua **ESTIBALITZ GONZÁLEZ**

Noiz izan zenuen Markosen lanaren berri?

Habanan nengoenean ezagutu nuen Zerorajaso bloga, Euskal Herrira itzultzean Markosen ama eta arreba ezagutu nituen apur bat kasualitatez, eta orduan ikusi nuen obra oso berezia egin zuela, bere biografiarekin eta bere gaixotasunarekin loturik, zentzu handikoa nire ustez... Nik ezagutzen ez nuen belaunaldi bateko pertsonaia zen, 1980tik kanpoan egon naizelako, eta Markosen bizitza ezagutu ahala konturatu naiz belaunaldi horri ere sasoi interesanteak bizitzea tokatu zaiola.

Sasoi interesantea?

Slavoj Žižek deitzen den filosofo batek erabiltzen du esaera hori ironiaz, txinatar maldizio batetik: “Garai interesanteak bizi ditzazula!” esaten omen zaio gorroto diozunari, ze interesanteak, krisi sasoiak, arazo eta konfliktodunak, lasai aspertzeko aukerarik ez du-

zunekoak dira.

Zerk deitu zuen zure arreta Markosengan?

Batez ere gaixotasun sortzaile horrek, jenialtasun horrek, arauetara buelta emate horrek... Hizkuntza tresna normalizat hartzen dugu, baina normaltasuna bera ere ez da normala. Markosen obrak normaltasun faltu horretatik ateratzen gaitu, hizkuntza bizileku eta sormen espazio bihurtuz: palindromo ustekabekoak, hitz asmatu barregarriak, anagramak, grafiti ederrak... Uste dut Markosek euskaldun guztiak erreprezentatzen gaituela eraren batean, dena normal dagoela esaten da edo normalizaziora goazela esaten da, baina gure bizimodu sozio-linguistikoa, eta politikoa ere bai, eskizofreniara kondenatuta dago. Hizkuntza bera ere halaxe daukagu-eta, estandar arautuaren aldean, liburu honetan eskizopoz apur bat proposatzen da.





Aizan, igela zenez, Alegi nazia palindromoaren ilustrazioa.

Zelan sartu zinen bere palindromoak liburu bihurtzeko abenturan?

Nire lehenengo ideia Markosen idazlan guztiak tomo baten biltzea izan zen, baina konturatu nintzen hori artxibistika lan bat izango zela, obra hori ez zela helduko jendearen komunikazio benetako espazioetara. Konpartitzen dugun hizkuntza bizira ekarri nahi izan dugu lan hori. Palindromoen arazoa da zentzugabetzat hartzen dela, ustekabeko aurkikuntza injenioso direla

baina zentzurik ez dutela. Onartzen zaio zentzua aforismoari, baina ez palindromoari. Nire ustez, lengoaiaren eta komunikazioaren denak du zentzua: palindromoak, aforismoak, saiakerak, eleberriak, eta isiltasunak ere zentzua du. Orduan, zentzu horren bila abiatu naiz liburuan, beste lagun batzuekin, ze lengoia eta komunikazioa elkarlana da, eta palindromoen interpretazio bisualaren aldamenean, eztabaida batzar moduko bat konbokatuko du ezkerreko orrietan.



101 Letrakartel da liburuaren izenburua. Zuk zelan aurkezten duzu?

Alde batetik, Markos Gimenoren bizitza eta lanaren azalpena da, Ermua eta Eibarra ldetik kanpora ia ezagutzen ez den autore. Badago hor saiakera bat bere bizitza eta bere belaunaldiaren asmoak eta bizipenak konprenitzeko. Beste alde batetik, auzolana da, jende askok kolaboratu du kartelak egiten, batzuk Markosen koadrilakoak, baina beste batzuk urrunagoak, eta testuetan ere bai: Joanes Leizarraga, Liza Minelli, Ambrose Bierce, E. Unanue, Mariano Rajoy, Anari edo Nikolas Gogol, auzolan oso irekia da. Azkenik, esan nahi dut, hizkuntzaren alde ludikoaren erreibindikazioa egiten dela, gainetik kendu ezin dugun egitura diglosikoarekin, euskaldunak ohitu gara sakrifizio edo behartzat hartzen euskaraz egitea, eta hemen euskaraz ustekabeari zabaltzen zaizkio atea.

Liburuak harridura, barregura, negargura... zer sortu dezake?

Denetik, harridura orri gehienetan, barregura asko askotan, eta igual negargura ere bai momentu batzue-

“Markosen obrak hizkuntza bizileku eta sormen espazio bihurtzen dut”

tan, ez dut uste aspergarria izango denik. Ni behintzat asko dibertitu naiz liburuia egin ahala. Hasteko, Markosek egin zuenarekin, eta gero, bere sortze metodoa generatiboa denez gero, linguistika chomskyanoan esaten den bezala, gramatika generatiboak dira, eta Markosen sormenak pizten dira beste hiztunon sormenarekin. Irakurleak horretara konbokatzen dira, irakurketa sortzailerara.

Irudigileek ere lanak izango zituzten esaldi xume baten esentziara ailegatzeko eta irudira ekartzeko...

Bai, bakoitzak bere estilora interpretatu du palindromoa eta irudi bihurtu. Uste dut denak sartu garelara Markosen mundura, irudigile asko Markosen lagunak dira, Markosen sarea, Ermuko edo Eibarko haren adiskideak, beste batzuk urrunagokoak, esate baterako Ares, Habanako karikaturista bat. Auzolanetan bezala, kolaborazioa emankorra izan da.

Irakurle orentzat pentsatua dago edo bakarrik hitz-jokoak, hizkuntz-jolasak eta berbekin esperimentatzea maite dutenentzat?

Liburuia zubi bat da hizkuntza-sormenaren esferatik, palindromogintzaren islatik, hiztunen komunitate irekira. Kezka intelektual apur bat duen edozeinek irakurri dezake. Palindromoen hizperimentazioa dago abiapuntuan, baina gero denon gauzak planteatzen dira eta denon hizkuntzan.

Euskal literaturan ze leku betetzera dator 101?

Euskal literatura, eta euskaldungoa orokorrean, korrontearen kontra bezala bizi gara, gauzak diren moduan ametituz gero urak eramango gaitu laster edo apur bat geroago. Mundu guztiari gertatzen zaio hori, baina euskaldunei modu berezian. Dena egiteko daukagu beti, hizkuntzatik hasita... Gure literaturak bete gabeko espazio handiak ditu oraindik, eta hau batez ere ustekabekoen, umorearen eta inkorrektzioen aldera dator.

Artistikoki eta sortzaile modura, zelan definitzen duzu Markos Gimeno?

Niretzat jenio bat izan zen, agian erdizka garatu zena, neurri batean bere gaixotasunagatik, eta bestetik bere sormena ondo bideratzeko aukerarik izan ez zuelako, gazte mugimendu lokalean geratu zen bere lana. Euskaldunontzat ona da bera bezalako sortzaileak izatea, pena da bera joanda gero konturatzen garelara.


Badago paralelismorik Markos Gimeno eta Joseba Sarrionandiaren artean?

Ez dut uste, Markos jenio bat da gaixotasun diagnostikatu eta guzti, eta ni idazle arrazionalista bat naiz. Berdintsuak gara beste plano batean: bere bizitza errepasatzen konturatu naiz jende piloia ibili dela Ermuan herrilanean, Markos eta beste asko auzolanean euskararen alde eta beste gauza askoren alde, herri hori eta mundua hobetzeko asmoarekin; ni apur bat lehenagokoa naiz, eta 70eko hamarkadako herri mugimenduko jendea ezagutu nuen. Gero, telebistan edo liburuetan izen batzuk errepikatzen dira, gehienek izena aipatu ere ez da egiten eta askok egindakoa ahaztu egiten da laster. Markos eta ni, izendatu daitezkeenak baino gehiago diren herri-behargin eta sortzaile horietako bi baino ez gara, oihartzun edo erantzun apur bat izateko suertea izan dugunok.

Eta orain zer?

Uste dut Durangoko azokan aurkeztuko dela liburua. Gernikako Euskal Museoa, kartelen erakusketa izango da martxora arte... Abenduan, ehun urte betetzen dira Kirikiñok euskarazko palindromoen txapelketa antolatu zuenetik Euzkadi egunkarian, eta antzeko zerbaitekingo da Berrian, eta Bigara taldeak beste erakusketa bat dauka Mañarian zientzia museoa... Markosen obratik, parte txiki bat erabili da liburu honetan, beste

liburu batzuk egin beharko dira... Dena eginda balego, akabo. Gai honetan, beste batzuetan bezala, euskaldunek suertea dugu, dena egiteko dugulako.



Liburuan kolaboratu duten ilustratzaile, argazkilari eta grafitigileak.

“Bere bizitza eta bere belaunaldiaren asmoak eta bizipenak konprenitzeko saiakera bat dago”



ZUZENBIDE KONTUAK
Lege eta kontu aholkularitza
Izarra Centre eraikina
Tel: 846080080
Mugikorra: 688885435
zuzenbidekontuak@gmail.com

Psikologia
Ongizate pertsonalerako zentroa



GUZTIOK
Nahia Rojo Bustindui
Psikologoa eta Sexologoa
Zubiaurre 40 · Ermua
Hitzorduak: 688 85 18 95



MUSIKA ESKOLA

- Akordeoia
- Biolina
- Biolontxelo
- Bonbardinoa
- Flauta
- Kantua
- Gitarra
- Gitarra elektrikoa
- Gitarra baxua
- Lengoia musikala
- Klarineta
- Panderoa
- Perkusioa
- Pianoa
- Saxofoia
- Trikitrixa
- Tronboia
- Tronpeta
- Txistua

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00
albokamusikaeskola@hotmail.com



KRABI
Ileapaindegia
Estetika
Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA



OSTEOPATIA
Pablo Lucena
617 680 156
info@osteopatiaplucena.com
Probaleku 5 - Ermua (Bizkaia)

“Atentzioa ematen digu jendeak gure kantak jakiteak”

Aiama · Musika taldea



Jon Rabadan (bateria), Ian Ogiza (gitarra), Oier Araiztegi (baxua) eta Andoni Arregi (gitarra eta ahotsa) dira Aiama talde ermuar-mallabitarren partaideak. Musika Eskolaren bueltan ibilitakoak, habiatik irten, eta gustuko musika estiloak jorratzea erabaki zuten duela bi urte inguru. Gaur egun, punkaren bidean daude, eta alienatu ezin dituzten gazte errebeldeztat dute euren burua.

Testua **DORLETA VIDAL**

Nola sortu zen Aiama?

Duela bi urte inguru, hiru lagun batu ginen, gure gustuko musika egiteko asmoarekin. Hasi eta handik gutxira, Andoni Arregi mallabitarra batu zitzaigun, eta bere amamaren baserrian egin genuen lehen entsegua.

Alienatu ezin dituzten gazte errebeldeak zaretela diozue zuen sare sozialetan. Horrela sentitzen zarete?

Bai. Kontzertuak ematen hasi ginenean, abestiren bat sortzeko beharra sumatu genuen. Abesti batean esaldi hori bururatu zitzaigun, eta gure biografian jarri genuen.

Zergatik “Aiama” izena?

Gertuko pertsona batek “aiama aiama” esaten zuen etengabe, eta gure artean txantxa hori genuen. Hala, taldea sortu genuenean, “aiama” etorri zitzaigun burura.

Zein musika estilo jotzen duzue?

Punka, batez ere. Taldekideon musika erreferentziarik oso ezberdinak dira: punka, metala, pop apur bat, aspaldiko euskal rocka... Baina saiatzen gara denoi gustatzen zaizkigun abestiak jotzen, denok pozik egoteko.

Eta zeintzuk dira abesti horiek?

EH Sukarra, Kortatu, Piperrak, Kaotiko, Rotten XIII, Eskorbuto edota RIP bezalako taldeen bertsioak. Gure errepertorioa aldatzen goaz, eta gero eta gauza zailagoak egiten ausartzen gara.

Gero eta hobeto egiten duzuela adierazten du horrek?

Bai, ez gara lehen bezain txarrak! Entseguei esker hobetzen joan gara, eta gainera, gure artean konfiantza hartu dugu eta nolabaiteko lotura sortu. Orain bada-kigu bakoitza zertan den trebeagoa, eta kontuan izaten dugu jotzerako orduan.

Zenbat abesti sortu dituzue dagoeneko?

Bost abesti sortu ditugu jada eta gure asmoa da maketa bat grabatzea.

Zein da abestia sortzeko jarraitzen duzuen bidea?

Prozesua antzekoa da beti. WhatsAppeko taldea dugu, eta horra bidaltzen ditugu akorde batzuk. Gero Andoni hasten da ideiak sortzen, lokalera eramaten ditugu, eta gero denon artean erabakitzen dugu gauzak nola egin...

Zenbat kontzertu eman dituzue dagoeneko?

Gure lehen emanaldia iazko gabonetan izan zen, Lurpe tabernak antolatutako *jam session* batean, hau da prestaturik gabeko ekitaldi batean. Halakoetan, instrumentuak jartzen dituzte, eta nahi dutenak igotzen

“Gure lehen emanaldia iazko gabonetan izan zen, Lurpe tabernak antolatutako *jam session* batean”



dira eszenatokira abestera. Han izan ginen, eta hiruzpalau abesti kantatu genituen: txarto baino txartoago! Hala ere tabernako jabeak esan zigun abesti gehiago jotzeko, oso giro ona sortzen genuelako, eta haraxe igo ginen berriro ere, pozarren.

Eta gustua hartu zenioten...

Bai, handik hilabete batzuetara, martxoan, Eskilapekon eta Sagardo Egunean jo genuen, eta apirillean London tabernan. Hamar-hamabi kontzertu inguru eman ditugu dagoeneko (La Forja tabernan, Txosnagunean, Mallabiko Goita auzoko San Juan jaietan, Etxebarrin, Aretxabaletan...), eta lagunak izaten di-

tugu beti inguruan: haien babesa sentitzea oso garrantzitsua da. Atentzioa ematen digu jendeak gure kantak abesteak, oraindik ez dugulako ezer grabatu eta ez dago ezer inon entzungai. Kontzertu askotara datozela adierazten du horrek, eta oso pozgarria da!

Zer moduz joan zen zuen lehen kontzertua kalean, Sagardo Egunean?

Euria zegoen eta, hala ere, jendea plazan egon zen gu ikusten, eta hori eskertzekoa da. Bestalde, oso ezberdina da leku itxi batean edo ireki batean jotzea: ekipoa ezberdina da, kalean material gehiago behar duzu, temperatura ezberdina da...



AMALUR
FISIOTERAPIA

6 8 8 6 1 9 8 9 6
zeharkale 12 bajo
4 8 2 6 0 ERMUA

IRENE ESQUÉ col 1666 EGOITZ FORMOSO col 1675



ANTIXIKETAN AISIALDIA

- Diputazio kalea, 8 - 10, behea.

PSIKOMOTRIZITATEA LOGOPEDIA
PSIKOTERAPIA LUDOTEKA
ERREFORTZU ESKOLARRA

943 576 124 10.00 - 13.30
747 453 607 15.30 - 19.30

  Antxixiketan  Info@antxixiketan.com

Mallabiko Urriko jaietan ere izan zarete...

Bai, eta oso berezia izan da bertan jotzea, batez ere niretzako (Andoni), nire etxea delako. Eman dugun kontzerturik onena izan da!

Bazoazte ametsak betetzen...

Bai. Taldea sortu genuenean, Eibarko Gaztetxera joan ginen Indabak taldea ikustera, eta erronkatzat hartu genuen guk ere bertan jotzea. Duela hilabete eta erdi jo genuen bertan!

Inolako laguntzarik jaso duzue proiektu hau aurrera ateratzeko?

Bai, jende asko izan dugu beti inguruan laguntzeko prest, tartean beste musika talde batzuk. Guztien artean Makis 37 nabarmenduko genuke: materiala laguntzeko prest daude beti, kontzertuetan lotsa atzean utzi eta aurrera egiten laguntzen digute.... Dena den, uste dugu musikaren munduan oso ohikoa dela talde batzuk besteak laguntzea, eta bultzada ematea. Horrez gain, berebiziko garrantzia dauka gurasoen laguntzak, neurri handi batean adin txikikoak garelako: kotxea behar denean beste herri batera joateko, instrumentuak eramateko... beti prest. Eta eskerrak eman nahi dizkiogu Andoniren amamari ere, lehen entsegua haren baserrian egin genuen-eta.

Gaur egun non entseatzen duzue?

Betiondoko lokaletan box bat daukagu, beste bizpahiru talderekin partekatzen duguna.

Zenbatero biltzen zarete bertan?

Azkenaldian hilean behin, azterketekin ibili izan garelako. Aurreko hilean, aldiz, lau kontzertu izan genituen eta astean pare bat egunetan entseatzen genuen.

Oso kritikoak zarete zuen lanarekin?

Bai, zerbait txarto irteten zaigunean ez daukagu beldurrik horri buruz hitz egiteko, eta hurrengo entseguetan hobeto lantzen saiatzen gara.

"Zerbait txarto irteten zaigunean ez daukagu beldurrik horri buruz hitz egiteko"

**Zuen nahia da ahalik eta gehien jotzea?**

Ez, barnean duguna kanpora ateratzeko tresna da musika, eta gure helburua da ondo pasatzea. Horrez gain, lehen aipatu dugun maketa hori grabatzeko aurretzen ari gara, eta kontzertuetan jasotzen dugun dirua gorde egiten dugu.

Musika garestia da?

Oso garestia. Instrumentuek dirutza balio dute, mikrofonoek, kableek...! Estudioetako orduak ere oso garestiak dira, baina kalitatezko produktuaren aldeko apustua egin dugu.


Nola ikusten duzue zuen burua hemendik urte batzuetara?

Ez dakigu. Datorren urtean unibertsitatera joango gara, eta gauzak aldatuko dira, baina nahiko genuke elkarrekin jarraitu musikaren munduan. Egungo erronka edo ametsa izango litzateke musika jaialdi batean parte hartzea, Landako Guneko 40 Minutu Rock-en, esaterako.



FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOAK
INPRIMAKETAK KAMISETATAN

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89



TXALAPARTA
ABERNA

Eta asteburuetan
 pintxoak, afariak
 eta bokatak!

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo ondoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo ondoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

Erdikokale 13
(Ermua)

ENKARGUAK
943 030 299

Aitor Elordik ohorezko sakea egin zuen San Mamesen


Athletic Clubek Aitor Elordi pilotaria omendu zuen azaroaren 10ean, Athletic - Celta partidua hasi baino lehen. San Mames jendez gainezka, ohorezko sakea egin zuen mallabikoak txalo artean, eta jokalaria guztien zorion-agurrak jaso eta gero erretiratu zen futbol zelaitik. Athleticen hitzetan, "Elordik urte bikaina izan du zalantzarik gabe", eta San Mamesek hala aitortu zion Ligako 13. jardunaldiko partida hasi baino lehen.

3,9 milioi euro inbertituko dira BI-2301 errepideko bidegurutzek berrantolatzeko

Bizkaiko Foru Aldundiak baimena eman du BI-2301 errepideko bidegurutzek berrantolatzeko proiektua egiteko, eta 3.969.525 euroko inbertsioa egingo du bertan. Errepide hura Ermuan hasten da, BI-633 errepidearekiko loturaraino doa, eta Mallabia zeharkatzen du. Obrak egiteko 14 hilabeteko epea aurreikusi da, eta helburu nagusia da eremu horretako bide-segurtasuna eta garraioaren kalitatea hobetzea. Aurreikuspenen arabera, obrak azaro honen amaieran lizitatuko dira, eta lanak udaberrian hasiko dira.

Damaris Pan mallabitarra BMW Pintura Lehiaketako finalera heldu da

Estatuko arte eta kultura lehiaketarik prestigiosuenetariko den BMW Pintura Lehiaketa bukatu berri da, eta guztira, ia 1.500 artelan aurkeztu dira 38. edizio honetan: 1.253 pinturaren kategorian eta 225 arte digitalaren atalean. Damaris Pan artista mallabitarra *Bochorno* artelana aurkeztu zuen pinturaren atalean eta, irailean egindako aukeraketa prozesu zorrotza gainditu eta gero, finalerako sailkatu zen, beste zazpi sortzailerekin lehia. Azaroaren 13an sari banaketa burutu da Madrileko Teatro Realen, eta pinturako lehen saria Murtziako Sonia Navarroren *Redes 1* artelanak jaso du. Arte digitalaren kategorian, aldiz, Galiziako Beatriz Rubialen *Botanical Night / Noche Botánica* izan da garailea. Panek behin baino gehiagotan parte hartu du lehiaketa honetan, eta 2021ean ere finalera heldu zen, titulurik gabeko artelan batekin.

Jon Albizu
Ainhoa M. Goitandia

Extremadura zeharbidea z/g
48260 ERMUA (Bizkaia)
Tel.: 943 174 505



Torrealday

ZURE FINANTZA-OSASUNERAKO BAZKIDE ESTRATEGIKOA

ZERGA, LAN ETA KONTABILITATE AHOLKULARITZA ERMUA

Plan B

Coffee Lounge Gin & Beer



Horacio Decoración
TAPIZERIA - ALIZABIAE - OIAGARRIAE



VI Centenario 10 - Ermua
943 03 15 80 / 688 61 06 38
www.dghoraciodecoracion.com



Danobatgroupek Euskararen Egunarekin lotutako lehiaketa antolatu du

"Euskaraz izango gara" leloa mantenduz, aurtten ere Danobatgroup Kooperatiba Taldeak Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzeko lehiaketa antolatu du. Lehiaketa hau Kooperatiba Taldeak lantegiak dituen herrietako herritarrei eta orokorrean gizarte osoari zuzenduta dago. Lehiaketan parte hartzeko, ondorengo helbidean sartu behar da: <https://info.danobatgroup.com/euskara/lehiaketa-2023.html>. Abenduaren 3ra arteko epea egongo da lehiaketan parte hartzeko, eta erantzun zuzena ematen dutenen artean produktu ekologikoz betetako otarre bat zozkatuko da.

Danobatgroup Industria Taldea espezializatuta dago makina-erreminten fabrikazioan, balio erantsi handiko osagaien fabrikaziorako garapenetan, giltza eskura erako ekoizpen sistemetan eta zerbitzu teknologikoki aurreratuetan. Danobatgroup kooperatibaz gain, Danobat, Soraluze, Goimek, Latz eta Ideko kooperatibek osatzen dute taldea. Danobatgroupek harreman sare zabala du eta lanerako hizkuntza asko erabili eta kudeatzen ditu. Baina Euskal Herriko lantegietako langile, hornitzaile, bezero, ikastetxe, administrazio eta abarrekin euskara erabiltzeko erabakia hartu du, eta horren adierazgarri dira taldeko kooperatiba guztietan euskararen erabilera bultzatzeko dituen planak eta lortutako Bikain Euskararen Kalitate Ziurtagiriak.

"Euskaraz izango gara" da Danobatgroupek etorkizunerako aurreikusten duen agertokia, eta hori errealitate bihurtzeko lanean ari da, bai eguneroko lanean, ikerketa eta garapenean, teknologia berrietan, elkarren arteko harremanetan... Baina, egunerokotasunetik haratago, gizarteari ere euskararekiko duen konpromisoaren berri eman nahi dio Danobatgroupek. Ildo horretan, inguruan garatzen diren hainbat ekimenetan parte hartzen du, eta ekimen sozial horietako askoren sustatzailea ere bada.

Eva Gutiérrez psikologo ermuarrak autolaguntza liburua argitaratu du



Si es tóxico no es amor izenburua darama Eva Gutiérrez psikologo ermuarrak argitara atera berri duen lanak (Penguin Random House argitaletxearen Somos B zizilua). Lehen pertsonan idatzitako autolaguntza liburua da, eta egileak irakurleak lagundu nahi ditu harreman toxikoak antzematen eta benetako maitasuna topatzeko

bidea aurkitzen. Horretarako bere esperientziak, pazienteenak eta ariketa praktikoak jasotzen ditu. Liburua azaroaren 23an aurkeztu zen, Gasteizen, eta dagoeneko salgai dago. Eva Gutiérrezek harreman toxikoa izan zuen, eta bukatutakoan, espezializatu egin zen bikote harremanetan, tratu txarretan, traumatetan eta mendekotasun emozionalean, egoera horietan harrapatuta daudenei lagundu ahal izateko. 2022an gai horien dibulgazio lanari ekin zion sare sozialetan.

Zortzi ermuarrek parte hartu dute aurtengo B/SS lasterketan

Azaroaren 12an burutu da aurtengo Behobia-San Sebastian lasterketa, eta bertan Ermuko 8 gizonezkoek parte hartu dute. Horien artean, Juan Ramón Plaza izan zen lehena helmuga zeharkatzen, eta sailkapen orokorrean 671. postuan heldu zen. Bere kategoriaren barruan, aldiz, 193. postuan sailkatu zen.





ITZE
OPTIKA
AUDIO

Entzumenaren doako azterketak
Audifonoetan azkenengo teknologia

Ahots grabazio publikoa egingo da Ermuan Euskararen Egunean



"Erronka berri bat dugu euskaldunok: makinek gure hizkuntza ulertu eta hitz egin dezaten, lehenago irakatsi egin behar diegu". Hitz horiekien aurkeztu zen Gaitu kanpaina urrian, besteak beste Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak, Librezaile elkarteak eta Euskaltzaleen Topaguneak bultzatuta. Kanpaina honen helburua da Alexa, Cortana, Siri edo Google Assistant bezalako gailuekin euskaraz komunikatu ahal izatea, eta horretarako ahots bilketa egiten ari da urrian hasi eta abenduaren 3a bitartean. Euren ahots-ekarpina egin nahi dutenak gaitu.eus webgunean sartu beharko dira eta bertan agertuko diren esaldi batzuk ozen irakurri. Lana errazteko, ahots grabazio publikoa antolatu da Ermuan Euskararen Egunean, hau da, abenduaren 3an, igandea, 13:00etatik 14:00etara. Euskal Birusak eta Euskaltzaleen Sareak sustatutako ekimena izango da, eta plazan egingo da. Parte hartu nahi dutenak ordu tarte horretan hurbildu beharko dira, mugikorra eskuan, eta bertan egongo diren boluntarioen laguntza jasoko dute, hala behar izanez gero. Bildutako ahotsak Mozilla Fundazioak sortutako Common Voice proiektuaren datu-base librean txertatuko dira, bertan dauden beste 113 hizkuntzetako esaldiek batera.



Common Voice proiektuaren datu-base librean txertatuko dira, bertan dauden beste 113 hizkuntzetako esaldiek batera.

Palindromo tailerra burutuko da abenduaren 13an



Markos Gimenezaren palindromoak biltzen dituen *101 letrakartel* liburuaren argitalpenarekin batera, palindromo tailerra antolatu du Euskal Birusak. Abenduaren 13an burutuko da, asteazkena, 19:00etan, Lobianon, eta Bigara Kolektiboa arduratuko da berau kudeatzeaz. Tailer hau aurten abiatuta-

ko "Sortuko dira" kanpainaren barruan burutuko da, eta kanpaina honen helburua izango da urtero gazteei zuzendutako tailerrak antolatzea, Euskal Birusa Elkartearen esanetan.

Appa hi! hitanoa praktikatzeko aplikazioa eskuragarri dago

Hika, eztok eta badon berba egitea hiztunen artean ohikoa izatek ia desagertzeaz dagoen trataera da. Euskararen berezitasun honek aditzari eragiten dio eta, emakumezkoa edo gizonezkoa izan hartzailea, aditz-forma aldatu egiten da. Gehien bat lagunarte eta egoera kolokialen erregistro hau urrituz joan dela erreparatuta, Badihardugu Deba Ibarreko Euskara Elkarteak Appa hi! aplikazioa sortu zuen telefono mugikorretan deskargatzeko: doan eta modu ludikoan 35 astetan hitanoaren oinarriak eskuratzeko diseinatua. Behin barruan, batuan ez bada, mallabitarra edo ermuarreragandik gertu-gertu dagoen eibartarraz aritzea aukeratu daiteke.



LEIRE RASCO
BIZARTEGIA
ILEAPAINDEGIA
943 17 17 96
@LEYTHEBARBER
C/GOIENKALE NS
ERMUA (BIZKAIA)



uriarte asesores ✓

Aholkularitza fiskala
eta lege aholkularitza

Komentukoa 3 behea · Tel. 943 179 040 · Faxa 943 179 197
48260 · Ermua · Bizkaia

XXVIII. San Martin



Azoka

Euskal Birusa Elkarteak antolatua.
Argazkiak: Dorleta Vidal.



Erabili meloia

Ez egin erosketa oldarkorrik

Kontsumitu buruarekin
#KontsumitzenJakin

kontsumoBIDE
KONTSUMOKO EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO DE CONSUMO

Euskadi, auzolana, bien común
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

f t i www.kontsumobide.eus

18 SAN MARTIN AZOKA





 DANOBATGROUP

 **euskaraz**
izango
Gara

HARTU PARTE DANOBATGROUP-EN
EUSKARAREN EGUNA
OSPATZEKO LEHIAKETAN!



Sartu lehiaketaren estekan, erantzun galdera eta irabazi **produktu ekologikoz betetako otarre bat**.

info.danobatgroup.com/euskara/lehiaketa-2023.html

PARTE HARTZEKO AZKEN EGUNA

2023ko **abenduak 3**
00:00 h

 DANOBATGROUP / DANOBAT / GOIMEK / IDEKO / LATZ / SORALUCE 



SAN MARTIN AZOKAKO SARIAK

Epaimahai honek aukeratu ditu aurtengo San Martin Azokako sarituak: Bizkaiko Erlezain Elkarteko Jose Benito Beobidek, Idiazabal Gazta-Izendapeneko Bit-tor Rodríguezek, Mendi Nekazaritza Elkarteko Juan Mari Totorikak, Euskal Biruseko Asier Ibaibarriagak, herriko ordezkariak izan diren Eva Zubizarretak eta Silvia Izarrak, eta Ermuko Udaleko Arri Araiztegik.



FRUTA ETA ORTUARIAK



1. saria:
M^a Pilar Mallabia
(Agarre-Mallabia).



2. saria:
José Antonio
Fernández
(Buenos Aires-Ermua).

GAZTA



1. saria: Aitor Urien
(Anbe-Abadiño).



2. saria: Eñaut Gallastegi
(Onandi-Mallabia).

OGIA



1. saria: Luis Mari Osa
(Mañe-Mallabia).

EZTIA



Txilar eztia: Igor Merino
(Barakaldo).



Mila-lore eztia: Mikel
Jauregiarzo (Oñati).

SAGARDOA



1. saria: Unai Bilbao
(Zornotza).

TXAKOLINA



1. saria: Oihane
Ojanguren (Lezama).

AIPAMEN BEREZIA



Alice Goffart eta Andoni
Rodelgo (Errezil).

EUSKAL BIRUSA ELKARTEAK TALOGILEAK OMENDU ZITUEN

Orain arte talogintzan arituta 46 emakume omendu zituen Euskal Birusak San Martin egunean, urtez urte euron esku trebeekin eta ilusiorik handienarekin taloak egin eta egin aritu izan direnak. Oholtzara igo eta esker onez lepotik zapi bana jarri zitzairen. Une hunkigarriena izan zen ohorezko aurruskua dantzatu zitzairenean, eta txalo artean bertan zeuden eta jada ez daudenen izenak irakurri zirenean.



EPAIMAHAIK ERAKUSLEIHO LEHIAKETAKO ARRAZOIAK EMAN ZITUEN

Berrogeita bat denda eta tabernek apaindu zituzten beraien erakusleiho eta mostradoreak San Martin Azokarako, herria bera nolabait dekoratuz. Eskertze-koa egindako ahalegina.



1. saria

Solozabal estankoa

Konposizio orekatua eginenez, erakusleihoaren bitartez modu didaktikoan herrian oso sustraituta egon den pilota jokora eta orduko sasoiran eraman izana baloratu du epaimahaiak.



2. saria

Munay arropa-denda

Epaimahaiak baloratu du egindako bilketa lana, detaileak zainduz eta landuz, ortuariekin konposizioak egin eta bi erakusleihoak eskainiz azokari.




HÉCTOR PETITEK

IRABAZI ZUEN

KALABAZAREN PORRA

Aurtengo kalabazaren porran 233 apustu egin ziren, eta pertsona bakar batek asmatu zuen haren pisua: Héctor Petitek (13,9 kilo).



Aurten, 218 herritar izan ditugu laguntzaile eta 82 erakunde, denda eta taberna.

TALOGINTZA: Maritxu Etxebarria/ Miren Astarloa/ Marijose Goiogana/ Maddi Goikoetxea/ Mari Karmen Urkidi/ Xabier Urkidi/ Jokin Txapartegi/ Amelia González/ Marian Ruiz/ Maite Areitioaurtena/ Ziortza Zelaia-Zugadi/ Maialen Arrizabalaga/ Maitane Fagoaga/ Maitane Millán/ Xabi Goikoetxea/ Aitor Arrizabalaga/ Ander Prol/ Josu Gómez/ Nahia Ruiz/ Mikel Yarza/ Alex Totorika/ Ziortza Gómez/ Eider Fuertes/ Asier Muñoz/ Leire Gorritxategi/ Karmen del Río/ Maialen Ugena/ Maddi Rodríguez/ Bea Ávila/ Libe Solozabal/ Asier Cascán/ Libe Areitioaurtena/ Olatz Espeso/ Andoni Arregi/ Oier Araiztegi/ Maren Unanue/ Iñigo de la Peña/ Miren Gorrotxategi/ Irati de Dios/ Uxue Aranberria/ Josu Cruz/ Jose Santos/ Aitor Arriaga/ Loli Cid/ Lorea Perosanz/ Iratxe Odriozola/ Montse González/ Mirene Moreno/ Mari Carmen Allende/ Rosa Jaussi/ Jose Luis de la Peña/ Iruñe Yarza/ Lorea Txapartegi/ Iruñe Aranberria Arantza Cañamares/ Bea Narbaiza/ Nerea Alvarez/ Izaro Areitioaurtena/ Maia Urkidi/ Leo Urkidi eta Urdin Txurruka.

**Eskerrik asko,
laguntzaile!**

TXIKURIXAK: Natalia Arrieta/ Rikar Txabarri/ Aitor Jauregi/ Esther Larreategi/ Alex Alvarez/ Beñat Garmendia/ Eneko Goikoetxea/ David Gómez/ David Elejalde/ Mikel Yarza/ Jaime Izagirre/ Rober González/ Bego Infante/ Elias Uriarte/ Arantzi Perosanz/ José Antonio Martínez Carbajo/ Alberto Belar/ Julen Berriozabal/ Miguel Fernández/ Pablo González/ Jokin Díez/ Txomin Espilla/ Eneritz Arriaga/ Alicia León/ Ane Rodríguez/ Patricia García/ Iban López/ Aitzol Lejardi/ Nerea Gimeno/ Araitz Barruetabeña/ Idoia Zamakola/ Maddi Gorritxategi/ Eli Areitioaurtena/ Juanjo Gorritxategi/ Ines Arano/ Maialen Gomez/ Aitor Garitagoitia/ Iñaki Astoreka/ Alaitz Fernández/ June Madariaga/ Eneritz Busto/ Sandra Martin/ Jorge Olaiz/ Aitor Sola/ Ibon Esteban/ Amaia Orbe/ Ines Lejardi eta Iker Olalde.

MUNTAIA/DESMUNTAIA: Aitzol Lejardi/ Naroa Beitia/ Manex Olaizola/ Juanma Rodríguez/ Eneritz Arriaga/ Fran Carrascosa/ Ramón Redondo/ Fernando Aranberri/ Juanjo Solozabal/ Jabi Vidal/ Josu Garitagoitia/ Fernando Orbe/ Alex Alonso/ Gus Blanco/ Nuria Morales/ Koldo Aranberria/ Ione Ortega/ Ibai Zubizarreta/ Aitor Ogiza/ Juanmi Bravo/ Beñat González/ Lucas González/ Aner Ramos/ Luken Blanco/ Aitor Malaxetxebarria/ Xarles Araiztegi/ Martxel Carrascosa/ Danel O'Callaghan/ Manex González/ Iker Gómez/ Marta Peris/ Andoni Santamaria/ Leire Cascán/ Leire Fernández eta Josu Segura.

BURUKO ZAPIAK: Mari Karmen Urkidi.



TICKETAK ETA KARTELAK: Yolanda Unamuno/ Idoia Narbaiza/ M^a Angeles Landaarroitajauregi/ Patxi Goitandia/ Marga Pérez/ Juantxo Díez/ Ramón Redondo eta Aitzol Redondo.

KALABAZA-PORRA: Mikel Madarieta/ Asier Madarieta/ Jokin Aranburu/ Danel Gorritxategi/ Irati Yarza/ Amaia Sangroniz eta Olatz Urkiaga.

SAIHESKIA: José Antonio Lejardi/ Alex Pagaldai/ Manolo González/ Julen Sololuze/ Mikel Uriarte/ Mariano Casado/ Oier Egaña/ Isa Montejo/ Gorka Elgea/ Iñaki Bidosola/ Oier Araiztegi/ Alicia Moreno/ Iñaki Totorika/ Aintzane Plaza/ Egoitz Gerrikabeitia eta Txomin Espilla.

UDALAK / ERAKUNDEAK: Ermuko Udala/ Udaleko Kultura, Berdintasuna eta Euskara Sailak/ Udaleko Brigada/ Udaltzaingoa/ Mallabiko Udala/ Bizkaiko Foru Aldundia/ BBK eta Monroe Automotive.

EPAIMAHAIKIDEAK: Silvia Izarra / Eva Zubizarreta/ Arritxu Araiztegi/ Nahia Ruiz eta Almu Maeso.

ERRIFAK: Marisabel Garitagoitia/ Angel Bravo/ Ramón Redondo/ Aitzol Redondo/ Anboto eta Urreta burdindegia/ Beta elektrizitate-denda/ Solozabal estankoa/ Irale hortz-klinika/ Amaia Urkizu eta Miguel harategiak/ MT ileapaindegia/ Kokko, Idoia, Sehiga eta Quetzal jantzi-dendak/ Sagardui poltsa-denda/ Mayte urdaitegia/ Capero's, Dakota, Déjate Querer, Ertz, Giroa, Goien, Hanigan's, Herga, Infreñu, Karabixa, Karikato, London, Mendiola, Plan B, Sagarra, Sorgin, Torrekua, Txalaparta, Txantxiku, Zabal eta Zutabe tabernak.

ERAKUSLEIHO LEHIAKETA: Ocón argazki-denda/ Senen bitxitegia/ Anboto eta Urreta burdindegia/ Arrieta eta Egaña elektrogailuak/ Beta elektrizitate-denda/ Abeletxe egoitza/ Solozabal estankoa/ AE estetika zentroa/ Mary fruta-denda/ Rubi gozo-denda/ Miguel eta Danotz harategiak/ Ainner, Krabi, Leire Rasco eta Malla ile-apaindegia/ Mediterranea, Munay, Ramos, Sehiga eta Quetzal jantzi-dendak/ Gauzak kinkila-denda/ Goiara lurrin-denda/ Maribel eta Xiripot liburu-dendak/ Mariasun loradenda/ Procolor mar-go-denda/ Alboka Musika Eskola/ Arriaundi okindegia/ Artarrai opari-denda/ Itze optika/ Orbe pertsianak/ Amatxi eta Karabixa tabernak eta Mayte urdaitegia.

BESTELAKOAK: Iturriagaitia Barajuen familia/ Ainhoa Etxebarria/ Lorea Perosanz/ Alicia Pascual estankoa/ Susana Ballesteros/ Jon Larrañaga/ Mari Feli Manzidor/ Iñigo Pro/ Alberto Arginzoniz/ Laura Olabe/ Ane Odriozola/ Axpe Aja/ Jokin Luarizaristi/ Aratz Vieira eta Irulitxa txaranga.

TALDEAK: Euskal Birusa Elkarte Kulturala/ Kaltxango AEK Euskaltegia/ Txindurri Txistu eta Dantza Taldea eta Alboka Musika Eskola.

TALDE ERAGILEA: Igone Amesti/ Gaizka Areitioaurtena/ Aritz Barruetabeña/ Naroa Beitia/ Nerea Berriozabal/ Piedi Eizagirre/ Nagore Espilla/ Eider Gisasola/ Estibalitz González/ Asier Ibaibarriaga/ Joseinas Larrañaga/ Aroia Lejardi/ Manuel Moreno/ Unai Rodríguez/ Eli Txurruka/ Marines Txurruka/ Rodol Ugena/ Tere Uriarte eta Dorleta Vidal.





58. DURANGOKO AZOKA
2023ko abenduaren 6tik 10era



Errealitate bihurtu den fantasia

Badator 58. Durangoko Azoka

ABENDUAREN 6TIK 10ERA BITARTEAN IZANGO DA, 'FANTASIA DA!' LELOAREKIN

Euskal kulturaren egutegian ezinbesteko hitzordua den Durangoko Azokak abenduaren 6tik 10era bitartean izango ditu atek zabalik aurten.

Fantasia DA! leloarekin dator, Nerea Mujika Gerediagako geroak esplikatu duen moduan: "Fantasia da sortzaile berrien ilusioa, liburuen usaina, diskoen kolorea, kulturazaleen irribarra, boluntarioen lana, aspaldi ikusi gabeko lagunekin topatzea, sormen bakoitzaren istorioan dagoen magia, jende alaiaren barbaroa, bizigogoa, kulturaren beroa".

Dagoeneko 58 urte igaro dira azokaren hasierako bultzatzaileen amets hartatik, "fantasia hura errealitate bihurtu zen eta gaur egun euskal kulturaren egutegian ezinbesteko hitzordua dugu".

Mujikak gaineratutakoaren arabera, "Euskal kulturari bultzada emateko asmoz, Durangoko Azoka jendetsu eta aberatsa izatea, horixe da gure fantasia".

Mundu propioa sortu

Fantasia horren irudi eta isla, Ximon Agirre artistak sortutako kartelak ilustratuko du azoka, hiru dimentsioko irudi sakona baliatuz, errealitate birtualean landua. Kolore alai eta saturatuekin, Durangoko Azokaren festa izaera bistaratzeko helburua izan du. "Kartelaren ideia nagusia mundu propio bat sortzea izan da, azokaren elementuak (liburuak, musika, bideogintza, teknologia berriak...) pertsonaia fantastikoenkin uztartuz", esplikatu du Agirrekerak.



Bisitari ugari izan zen iazko Durangoko Azokan. DURANGOKO AZOKA

Ikasle Goiza

Azokak abenduaren 6an atek zabaldu ondotik, hurrengo egunean, abenduaren 7an ikastetxeetako eta aisialdi taldeetako gazteei zuzendutako tailer, hitzaldi eta ikuskizunen egitaraua izango da, bestela esanda, Ikasle Goiza izango da.

Egun horretan Ikasle Goiza izan arren, azoka nahi duen guztiarentzat zabalik izango da 10:30etik 20:00ak bitartean.

Aurrez aurrekoaren alde

Osterantzean, aurten, Durangoko Azokak aurrez aurreko formatuaren erabateko apustua egin du, 2020an, pandemiak eragindako egoerak behartuta, abian jarri zuten online azoka ereduaren leihoa itxiz.

Antolatzaileek esandakoaren arabera, iaz, azoka presentziala indartu zuten, eta, erabiltzaileek

ere aukera hori lehenetsi zuten. "Hori dela eta, aurten aurrez aurreko azokaren aldeko apustu osoa egingo dugu. Online ereduaren leihoa itxiko dugu. Hala ere, pertsona guztiz bota barik; izan ere, etorkizunean horren premia egonez gero, egoerara egokitzeko adierazgarria", esplikatu zuen Beñat Gaztelurrutia Gerediaga elkartearen koordinatzaileak.

Hurrengo astean zabalkundea

Horrekin batera, Gerediaga elkartearen ordezkariak gogora ekarri

"Aurten, aurrez aurreko azokaren aldeko apustu osoa egingo dute, online ereduaren leihoa itxiz"



Aurtengo Durangoko Azokaren aurkezpena. DURANGOKO AZOKA

dute Durango Azokaren osteko astean, *Zu non, han DA!* ekimenaren bitartez, Euskal Herri osorako zabalkundeari jarraipena emango zaiola.

Zu non, han DA! ekimenari esker, Durangoko Azokako nobedadeak eskuragarri egongo dira Euskal Herriko hainbat liburu dendatan. Horietako zenbaitetan, gainera, liburu aurkezpen bereziak antolatuko dituzte.

Zortzi gune ditu azokak

Azokaren ezaugarriari dagokionez, berriaz, 1990etik liburu eta diskoen azokara, kulturaren diziplina ezberdinak ordezkatzuz, gune bereziak lotzen joan zaizkio eta gaur gaurkoz, zortzi gunetan banatuta dago azoka: Saguganbara, Aho-tsenea, Irudienea, Szenatokia, Areto Nagusia, Kabia, Plateruena eta Azoka TB.

Lankidetzarako topaketak

Bestalde, Durangoko Azokaren bueltan, baina azoka zabaldu baino lehenago, sortzaileei eta programatzaileei zuzendutako *DA! PRO* aurrez aurreko bi topaketa egingo dira azaroaren amaieran, aurten bosgarren urtez.

Ekimen horren helburua da euskaraz jarduten duten sortzaileen eta programatzaileen arteko lankidetzaren sustatzea.

Hori horrela, *DA! PRO* topaketan, sortzaileek euren lanak erakutsi

Kabia, Saguganbara, Aho-tsenea, Irudienea, Szenatokia, Areto Nagusia, Plateruena eta Azoka TB dira guneak

ahalko dituzte sektoreko programatzaileen, kultur teknikarien, liburutegietako dinamizatzaileen eta bestelako profesionalen aurrean.

Horretarako, batetik, familia ikuskizunen aurkezpen laburrak egingo dituzte, Durangoko Bizenta Mogel bibliotekan, azaroaren 28an, goizez. Bibliotekaren beraren eta Berbaro euskara elkartearen laguntzarekin egingo dira aurkezpenok..

Bestetik, musikarien txanda azaroaren 29an izango da. Musika Bulegoarekin batera antolatutako ekimenean, urtean zehar Euskal Herriko kultur aretoetan ekintzak prestatzen dituzten programatzaileek bertatik bertara ezagutuko dituzte sortzaileen lanak. Plateruena kultur aterpean izango da topaketa hori, 09:00etatik 14:00etara.



Amorante. JON GARATE

Elgoibartik Durangora sorkuntza lan oparoa

Oparoa izan da aurten ere Elgoibarko sortzaileen uzta, bereziki literaturan, eta lan gehienak Durangon izango dira salgai. Hala ere, azokak bere eskaparate propioa izango du Elgoibarren ere.

Saiakeran estreinatu da Jasone Osoro, eta *Arrakasta* izeneko liburua eman du argitara, Elkar argitaletxearekin. *Arrakasta* lortu duten hamaika laguni egindako elkarrizketak, bere oroitzapen eta esperientzia propioak eta zenbait autoreren aipu eta esanak bilduta osatu du liburua.

Uxue Alberdi, bestalde, bi lan berriekin dator: *Belarriko kilkerra* eta *Surflaria*. Bizitzaren eta heriotzaren urek bat egiten duten istorioa da *Surflaria*, eta Susana Martin komikilariarekin batera argitaratu du (*Ikastolen elkarte*). *Belarriko kilkerra*, bestalde, narraitiba liburua da (*Elkar*). Ahoz kontatu eta belarritz jasotako testuak dira liburukoak, eta ahozkotasuna, memoria, transmisioa eta giza

kondizioaren oinarriak biltzen dituzte. Begoña Durrutyk ilustratu du liburua. Horrez gain, taldean sortutako beste lan batean ere hartu du parte Alberdik, eta talde horretan egon da baita ere Daniele Sarriugarte elgoibartarra. *Zirriborroak* eta *gero* idatzi dute hamar lagunen artean. Etorkizuneari pentsatzeak ziurgabetasuna kudeatzen laguntzen du, eta, ildo horretan, etorkizunaren dekalogo bat proposatzen digu liburu honek.

Olaia Irigoien ere idazle paperean estreinatu da 2023an. *Inesa Gaxen* ipuin ilustratua argitaratu du, Adapta argitaletxe kataluniarrekin. 6-8 urte bitarteko umeentzako ipuina da, eta Inesa Gaxenen bizitza kontatzen du. XVI. mendean jaio zen Nafarroa Beherean, eta

sorgintzat hartu zuten. Epaitua eta torturatua izan zen, baina hala ere, ez zuen inoiz sorgina zela onartu.

Musikari dagokionez, Iban Urizar Amorante izango da Elgoibarko ordezkaria Durangon. *Harri, Herri, Har* diskoa kaleratu du Amorantek, Forbbiden Colours argitaletxearekin. Hiru zutaberen gainean eraiki du diskoa, (*Harri, herri, har*) herri musikaren orube malgua oinarri duela. Kanpaiak, malenkonía, festa, animaliak eta poesia ageri dira. Hainbat musikari izan ditu Amorantek bidelagun: Felix Buff eta Hasier Oleaga bateria jotzaileak, Hatxeren pianoa, Xabier Zeberioeren hariak, Los Sara Fontan bikoaren fantasia eta Amaia Mirandaren gitarra, besteak beste.

Durangoko Azoka, Pitzintxun Duragon ez ezik, Euskal Herriko herrietako dendak ere izaten dira Durangoko Azokaren eskaparate, eta sormen lan batzuk herrietako liburu dendetan aurkeztzen dituzte, *Durangoko Azokak* izeneko egitasmoaren barruan. Elgoibarko Pitzintxu opari dendak ere hartuko du parte ekimenean, eta Goiatz Labandibar (*Oiartzun*, 1985) idazleak bere azken lana aurkeztuko du bertan: *Bekatua*. Biharamun emozional baten kontakizuna da. Ezezagun baten ohean esnatu da Garazi eta horrek bere ordurako bizimodua, harremanak, ziurtasunak eta usteak irauliko ditu. Abenduaren 13an izango da aurkezpena eta ordura aurrerago zehaztuko dute.

Elgoibarko sortzaileek ere beraien azken lanak erakutsiko dituzte Durangoko Azokan



Hitz jokoetan aditua eta aritua izan zen gazte ermuarra.

Markos Gimenoren sormena ikusgai

Joseba Sarrionandiak Markos Gimenoren 101 letrakartel liburua aurkeztuko du Durangoko Azokan, abenduaren 8an.

Markos Gimeno *autore erotua* da, eta horra hor liburu honetan agertzen den lehen palindromoe-tako bat, hau da, aurretik atzera eta atzetik aurrera berdin-berdin irakurtzen den hitz, zenbaki edo perpausa. Kasualitateak sortu-takoak direla eman dezakeen arren, hitz joko horien atzean irudimen eta sormen esparru zabala dago, eta mundu horretan bere saltsan ibiltzen zen Ermuko gaztea.

Joseba Sarrionandia idazleak duela bi urte ezagutu zuen Markos Gimeno ermuarraren lana eta, liluratuta, haren "jenialtasuna" munduan zabaltzeko erabakia hartu zuen: "...harrigarria iruditu zitzaidan Markosek sortutako obraren grazia. Are ikaragarriagoa iruditu zitzaidan momentuan ia ezezaguna izatea, euskal mundutxoan ere, Ermutik

edo Eibar aldetik kanpora", azaldu du Sarrionandiak liburuaren hitzaurrean.

Sortzailearen inguruan beti izan den senide eta lagun sare horretara hurbildu zen idazle iurretarra, eta lana biltzeari ekin zion, baina ez Markosen lan guztiak liburu-kote baten bildu eta argitaratzeko, baizik eta bere obra "kalepsiatik atera, eta haren lanaren parte bat behintzat, palindromoen, euskal hitzunen artean (...) ezagutarazteko; iratzarri, bizkor-tu eta zabal dadin".

Horrela sortu zen Markos Gimeno-*ren 101 letrakartel*, Markosen palindromoekin hainbat marrazkilarik, grafiterok eta argazkilarik egindako ehunetik gora kartel biltzen dituen. Kolaboratzaile hauen artean daude, besteak beste, Esther Astarloa, Jose Antonio Azpilikueta, Sonia Garcia, Gorka

"Kartel palindromiko bakoitza (...) jolas liluragarri bat izango da edozeinen gogo ernearentzat"

González, Exprai, Santos Vega, Monti, Klemen Corredera edota Tono Fernandez. Guztira, ia 40 lagunek parte hartu dute, lanari askotariko ikuspuntu eta ukituak erantsiz. Material guzti hau batu eta forma eman, edizio grafikoa alegia, Esteban Montorio diseinatzailearen esku utzi da.

Markosen inguruan

Markos ezagutzen ez zutenek haren bizitzaren gorabehera guztiak, edo gehienak, topatuko dituzte liburuaren lehen berrogeita hamar orrietan, inguruko enahotsek kontatuta. Hona hemen liburuaren erreseinan topatu daitekeen aurkezpen laburra: "Markos Gimeno Vesga 1974ko maiatzaren 3an jaio zen Ermuan. (...) Bere bizitza sorkuntzara bideratu zuen, nahiz eta bipolaritate gaitasuna eta depresioaldiak jasan. Bere buruaz beste egin zuen, azkenean, Eibarren 44 urte zituela, 2018ko abenduaren 7an.

Markos bizi osoa (...) sortzen ibili zen euskal komunitatearentzat (eta humanitate osoarentzat, jakina). Haren kartel palindromiko bakoitzak sorpresa linguistiko bat aportatzen du, eta jolas liluragarri bat izango da edozeinen gogo ernearentzat".

Liburua eskuratu

Liburua irakurri nahi dutenek Durangoko Azokan eskuratu ahal izango dute. Era berean, Ermuko eta Eibarko liburu-dendetan salgai jarriko da, hala nola Interneten ere.



Pop, folk, elektronika eta sustraiko musika dira nagusi Izaroren azken diskoan.

Izarok aro berri bati emango dio hasiera

Mallabiko abeslariak Durangoko Azokan aurkeztuko du bere bosgarren diskoa, *Cerodenero*, hala nola bideoklip berria

"Bi urte eta zertxobait gehiago egon gara *Cerodenero* eraikitzen. Hasieran, nik bakarrik hasten dut beti ibilbidea eta bidetik jendez inguratzen noa elur bola txiki bat bezala, handi-handi heltzen dena mendi magalera". Hitz horiekien laburtzen du Izaro abeslariak *Cerodenero* diskoa sortzeko prozesua, eta abenduaren 8an berau osatzen duten hamabi abestiek argia ikusiko dute Durangoko Azokan.

Abeslariak aurreratu duenez, *Cerodenero* album kontzeptuala zirrargarria eta bizia da. Berak burututako barne-bidaia da, eta, bertan berreskuratzen ditu pop, folk, elektronika eta sustraiko musika doinuen kontrastez beteriko mihiseak, lehen estrofatik harrapatzen duten poesia eta metafora zertzeladak dituztenak. "Izarok bere alderik argitsuena erakusten digu, baina baita ba-

satiena ere, aro berri beti hasiera emanetz", adierazi dute zabaldu-tako prentsa oharrean.

Diskoak hamabi abesti biltzen ditu eta horietako lau entzungai daude dagoeneko hainbat plataformatan eta ikusgai YouTubean: *introa*, *Zero*, irailean estreinatuz; horren ostean, *x eta besteak* zabaldu zen; urrian, *Campamento base* eta azaroan, *Iparraldera*. Abenduaren 8an, bosgarren bideoklipa estreinatuko du, Durangoko Azokako Irudienean, 13:00etan. Horrez gain, standa izango du Azokan, eta bertan egongo da egunero, sare soziale-tan jakinarazi duenaren arabera.

Aurrezalmenta

Izarok bi formatutan kaleratuko du *Cerodenero*: biniloan (35 €) eta CDan (18 €); eta bere webgunean eros daiteke dagoeneko (www.izaromusic.com), abeslariak aurrezalmentari ekin baitzion urriaren 10ean. Bide hau erabiltzen dutenek abenduaren 8tik aurrera jasoko dute diskoa, abeslariak sinatuta.

Durangoko Azokan erosten dutenek ere Izaroren sinadura eramango dute *Cerodenero*ren azalean.

Aurkezpen bira

Durangoko hitzordua eta gero, aurkezpen birari ekingo dio Izarok. Hala, urtarrilaren 2an Bilboko Euskalduna Jauregian joko du; 3an eta 4an Donostiako Kursaal Auditorioan; 13an Las Palmaseko Sala Insular de Teatron akustikoa eskainiko du eta 20an akustikoa baita ere Pozuelo de Alarconeko Inverfest Teatro Miran. Otsailaren 3an Gasteizko Principal Antzokian egongo da; 9an Bartzelonako Apolo aretoan; martxoaren 2an Sevillako La Cartujan joko du, eta iragarrita dagoen azken kontzertua martxoaren 18 burutuko da, Iruñeako Baularten. Sarrerak salgai daude dagoeneko.

Izarok iaz kaleratu zuen bere azken diskoa, *Limones de oro*, Amaral, Xael López, Zahara eta Rozalen bezalako artistekin batera grabatutakoa. Haiekin batera, estatu osoan zehar bira egiteko aukera izan zuen eta Helsinki, Paris, Mexiko Hiria eta Buenos Aires bezalako hiriburuetan egon zen. Disko hari lotutako biran, Anoetako Belodromoko sarrerak agortzea lortu zuen, hori egitea lortu duen lehen emakumea izanik.

Urtarrila eta martxoan bitartean aurkezpen bira burutuko du, eta sarrerak salgai daude dagoeneko



Jon Artanok 'Juana' liburua plazaratu du



Jon Artano zestoarra 'Juana' liburuaren aurkezpenean, Donostian. ELKAR

Jon Artano Izeta kazetariak (Zestoa, 1978) bere lehen liburua argitaratu du, *Juana*, Debako Udalak eta Elkar argitaletxeak antolatzen duten Tene Mujika bekaren laguntzaz. Kazetaritza "su geldoan" egin nahi zuen Artanok eta horretarako baliatu du beka. Azken asteotan Donostian, Deban eta Zestoa aurkeztu du

emaitza eta Durangon egingo du beste aurkezpen bat, abenduaren 8an (19:00etan).

Juana Perea Plata da liburuiko protagonista, 1937an Bilbotik ihesi Bogotara iritsitako euskal familia batean jaiotako "ardi beltza", legendazko emakume bat. Nera-be zela, etxetik alde egin zuen Karibera. Urpekari profesional

bihurtu zen, belaontzietan bizi izan zen, telebistan produktore lanak egin zituen, Afganistanen ibili zen gerran, hotel bat eraikitzen hasi zen gero... "Oso noizean behin sortzen diren pertsona horietako bat izan zen *Juana*", laburbildu du Artanok. "Abenturazalea, ausarta, mugarik ezagutzen ez zue-na, mugak topatuz gero mugak pasa egiten zituena, erakarpin indar handikoa... Bere senide bat-ek esan zidan bezala, urakan bat zen". 2020ko urriaren 29an tiroz erail zuten Kolonbian, "agian marra bat baino gehiago gainditu zuelako, agian gehiegi nabarmen-du zelako".

"Nahikoa bere horretan"

Artanok Anderik Ande izeneko proiektuarekin irabazi zuen iaz Tene Mujika beka. Ameriketako ibilitako hainbat euskaldunen kontuak eta Euskal Herriaren dabil-tzan hainbat amerikarrenak jasotzea zen hasierako asmoa eta sei hilabeteko bidaiari ekin zion Argentinan, Txilen, Bolivian, Perun, Ekuadorren eta Kolonbian. Azkenean, ordea, Perearen eta haren familiaren istorioari eman dio li-buru osoa, "liburu izateko nahikoa zelako bere horretan".

Tene Mujika eta haren ekarpena, argitara

Tene Mujika bekaren fruitu diren liburuez gain, Robustiana Mujika Egaña, *Tene* (1888-1981) idazle eta olerkari debar-raren irudia eta lana ezagutzera emateko bestelako argitalpenik ere izango da aurten azokan. Otsailean aurkeztutako *Tene Mujika* emakumea. Pizkundetik ahanzturara. XXI. mendetik ateratako postargazkiak ikerlana da adibideetako bat.



Nekane Goikoetxea. AIURRI

Mondragon Unibertsitateko irakasle Nekane Goikoetxea Agirrek (Deba, 1970) osatu da lana. Helburua bikoitza izan da. Batetik, Tene Mujika bere garaian kokatuta eta haren soziobiografia aintzat hartuta, bere ekarpenari balio handiagoa eman nahi izan dio egileak; bestetik, Mujikaren azterketan genero ikuspegia txertatu du. Eusko Jaurlaritzaren Berdintzen bekarekin ondu du ikerlana Goikoetxeak.

Sei disko Gaztelupeko Hotsak diskoetxetik

Euskal musika doinu latinoekin, jazz-a, euskal tradizioaren eta melodien egokitzapenak, Nick Caven bertsoiak... denetarik izango da

Soraluzeko Gaztelupeko Hotsak diskoetxeak sei disko izango ditu aurtengo Durangoko Azokan, Zabaltzenen standean.

Sei disko horietatik bi Gaztelupeko Hotsak zigilupean argitaratutakoak dira: Txuma Murugarren entzutetsuarena eta Ache Pa Ti taldearena. Beste laurak, berriz, Errabal Jazz zigilupean argitaratu dituzte: Javier Lopez Jaso, losu Izaguirre Sextet, Giulio Ottanelli Quartet eta Nevermind Quartet.

Txuma Murugarren: Gautegia
Gaztelupeko Hotsak-eko Joxe Felix Azkarate Xarrak nabarmendu duenez, "Gautegia/Nocturama Txuma Murugarrenen diskografiaren mugarri da orain eta gaurtik aurrera. Bere Nick Caverekiko mirespen eta lilura azaltzeaz gain, Txuma bera, egile eta sortzaile berezi bezala dagokion lekuan jarri dezakeena eta jarriko duena. Handien artean, nola ez."

Ache Pa Ti: Bilakatzen

Jazz latino eta kubatar sustraiko musikarekiko zaletasuna Euskal Herriko kultura eta folklore tradizionalarekin uztartzen dituen Ache Pa Ti talde iruindarrak, berriz, *Bilakatzen* izeneko bigarren diskoa argitaratu du. Bertan, "bereziki deigarria da txistuaren presentzia eta garrantzia, bera baita nagusi eta gidari doinu gehienetan, erraztasun eta naturaltasun txundigarritz moldatuz era guztietako doinu eta erritmo latinoetara. Ache yoruba hizkun-



Txuma Murugarren.

tzako hitza da eta *Ache pa ti* esarak zorte on eta zoriontasun nahia adierazten du", azaldu du Xarrak.

Javier Lopez Jaso: Zimelezin

Bestalde, Azkarateren esanetan, Oiartzungo Mecca estudioetan grabatutako proposamenarekin dator Javier López Jaso soinu-jole nafarra *Zimelezin* diskoarekin. Mikel Andueza saxofonista, Marcelo Escrich kontrabaxua eta Dani Lizarraga bateria-jotzailea moduko musikari eta lagun handiez inguratuta, bidaia moduko bat planteatzen du. "Javier beraren kantu originalekin batera, euskal tradizioaren erritmoen eta me-

lodien egokitzapen bikain eta sofistikuak, eta mitologia kutsuko kantu herrikoiak (Axuri Beltza, Txoria txori) aurki ditza-gegu bertan".

Iosu I. Sextet: Mingus Mood

Iosu Izaguirre Sextet taldeari dagokionez, "Mingus maisuaren musika diseinatu eta osagai txiki eta sinpleenetara murriztu du, haiekin omenaldi moduko eraikiz eta "guztiz Mingus" bat aurkeztuz", dio Gaztelupeko Hotsak-eko Xarrak. Gaineratutakoaren arabera, Iosu Izaguirrek konposatutako zortzi doinuz osatutako lana da *Mingus Mood*, Gasteizen 2022an grabatuta, Vital Fundazioaren Araba Aretoan.

Giulio Ottanelli Quartet

Getxoko Jazzaldien 46. edizioan talde onenaren saria Giulio Ottanelli laukoteari eman zitzaion. Parisko goi mailako kontserbatorioan ezagutu zituen Jeremie Lucchese (saxo tenorra), Cyril Drape (kontrabaxua) eta Emile Rameau (bateria), eta eurekin sortu zuen laukotea; eurak ere izango dira presente Durangoko Azokan. "Taldearen musika, euren emanaldiak hain erakargarri egiten dituzten melodia luzeetan oinarritzen da", dio Xarrak.

Nevermind Quartet

Azkenik, Xarrak nabarmendu duenez, Euskal Herriko jazz eszenan presentzia handiko musikariak dira Nevermind Quartetekoak. Hasier Oleaga The Heckler-en, Teresa Zabalzaren boskotean edo Ruper Ordorikaren eta Mikel Laboaren ondoan aritu izan da, Julen Izarra Trizak taldean, Jorge Abadias hainbat ekimen biltzen dituen ibilbide luzearen jabe da eta Aritz Luzuriaga Bilboko JC Arriagako kontserbatorioko irakaslea da, besteak beste.



Debabarreneko uzta



NEREA LOIOLA PIKAZA
‘Idatzi behar nizkizunak’
Erroa argitaletxea.




NEREA LOIOLA PIKAZA
‘Azken denbora’
Bilduma: Eskapu liburuak, 2. Erein argitaletxea.



ANE BASTIDA LIZASO
‘Hideane eta bere lagunak’
Ilustrazioak: Nadia Beltran de Lubiano. Denonartean argitaletxea.



GOIZANE AIZPURUA IBAÑEZ
‘El reflejo de la tibieza’
Alberdania argitaletxea.




JON ARTANO IZETA ‘Juana’
Tene Mujika beka. Debako Udalak eta Elkar argitaletxeak elkarlanean argitaratutako lana.



NEKANE GOIKOETXEA AGIRRE
‘Tene Mujika emakumea.’
Pizkundetik ahanzturara: XXI. mendetik ateratako postargazkiak’
Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.



TIRO 'Gure irtenbidea'
TAE Records diskoetxea.



JOKIN BERGARA 'Adaxka lehorrak. Talka ekosozialaren biharamun politikoak'
Txalaparta argitaletxea.



KVALVIKA 'KVK'



OLAIA IRIGOIEN 'Inesa Gaxen'
Adapta argitaletxea.

OLAIA IRIGOIEN 'Misión Don Quijote y Sancho Panza'
Adapta argitaletxea.




UXUE ALBERDI ETA DANELE SARRUIGARTE 'Zirriborroak eta gero'
Consoni argitaletxea.



UXUE ALBERDI 'Surflaria'
Ikastolen elkarte.



UXUE ALBERDI 'Belarriko kilkerra'
Elkar argitaletxea.



JASONE OSORO 'Arrakasta'
Elkar argitaletxea.



MUSIKA



AMORANTE 'Harri, herri, har'
Forbiden colours argitaletxea.

MALLABIA

MUSIKA



IZARO 'Cerodenero'

ERMUA

LITERATURA



TXABI ARNAL ETA EDU ZELAIETA
'Gora gure alkate jakintsua!'
Elkar argitaletxea.



JOSEBA SARRIONANDIA 'Markos Gimenoren 101 letrakartel'
Pamiela argitaletxea.

SORALUZE

MUSIKA



TXUMA MURUGARREN 'Gautegia'
Gaztelupeko Hotsak.



ACHE PA TI 'Bilakatzen'
Gaztelupeko Hotsak.



JAVIER LOPEZ JASO 'Zimelezin'
Errabal Jazz.



IOSU IZAGUIRRE SEXTET 'Mingus Moods'
Errabal Jazz.



GIULIO OTTANELLI QUARTET
'Getxo Jazz 2023'
Errabal Jazz.

NEVERMIND QUARTET 'Boost lau gara'
Errabal Jazz.

MUZAK 'Irabaziak eta galerak'

"Daukagun zarata guztia aterako dugu Ahotsenean"

JOANES IÑURRIETA BOKALISTA

Ahotseneako oholtzan izango diren 49 taldeen artean, bat, Muzak, Debabarrenekoa da. Abenduaren 10ean, 15:40an egingo dute zuzenekoa.

Muzak taldeko Joanes Iñurrieta (Soraluze, 1991), Ruben Irigoyen (Elgoibar, 1991) eta Aitor Sagarremendi (Mutriku, 1994) "pozik" daude aurten Durangoko Azokako Ahotsenean egon ahal izatea lortu dutelako. Joanes Iñurrieta taldeko bokalista soraluzetarrak azpimarratu du Durangon taldeak duen "zarata guztia" aterako dutela.

Ahotsenean kontzertua eskaintzea beste jauzi bat izango da Muzak taldearendako?

Durangoko Azoka, Euskal Herri mailan, oso hedabide ona da, artista baldin bazara, batez ere. Urteko ekimenik potenteena da kulturalki musikaren eta liburuaren arloan eta hor egotea oso garrantzitsua da. Iaz, saiatu ginen *Programaturik* lanarekin Ahotsenean sartzen, baina ez genuen lortu. Aurten pozik gaude lortu dugulako eta han egongo garelako.

Zer eskainiko duzue Ahotsenean?

25-30 minutuko kontzertua izango da, lauzpabost abesti joko ditugu guztira. Ez da izango kontzertu akustikoa. Daukagun zarata guztia aterako dugu.

Denetik joko duzue?

Aurten atera dugun *Irabaziak eta Galerak* (Gaztain Estudioak) EPan oinarritutako zuzenekoa izango da eta oporren aurretik publikatu genuen *Gezur Mila* singlea ere sartuko da. *Irabaziak eta Galerak* EPari dagokionez, *Programaturik* (Gaztain Estudioak, 2021) laneko abesti guztiak ere baditu.

Bigarren EPan zuen bi lanetako kantu guztiak batu dituzue?

Bai. Kontua da lehen diskoarekin, *Programaturik*-ekin ez genuela atera disko fisikoa eta gero damutu egin egin ginela. Hala, *Irabaziak eta Galerak*-ekin CDa atera genuen. CD horrek dauzka lau abesti berri

gehi bonus modura, *Programaturik*-eko zazpi abestiak gehigarri.

Eta zuen CD hori erosteko aukerarik izango da Durangoko Azokan?

Bai. *Irabaziak eta Galerak* salgai egongo da azokako Musika Zuzenenean-en standean.

Zergatik damutu zineten diskoa atera ez izanaz?

Disko fisikoa gaur egun ez da asko saltzen, baina gertatu izan zaigu momentu puntualetan jendeak eskatu izana eta pena horrekin geratu ginen, fisikoa nahi duen horri diskoa ezin emanarekin,

"Durangoko Azoka da urteko ekimenik potenteena musikaren eta liburuaren arloan"





Aitor Sagarmendi, Joanes Iñurrieta eta Ruben Irigoyen.

MUZAK

aparte, abesti ona da, denbora inbertitu dugu single horretan, lana dauka eta entzuteko gustoso da. Bestalde, saiatzen gara konstantzia mantentzen, abestiak publikatzerakoan, sare sozialetan idazterakoan... Hor egon behar duzu, bestela...

Sare sozialak zaintzen ibiltzen zarete, justu zuek 'Gezur Mila' kantuan kritikatzan dituzuen sare sozial horiek...

Bai, abestiak kritika hori egiten du. Kontziente gara sare sozialek pertsonengan duten eraginean, baina horren konplize ere bagara. Paradoja moduko bat da.

Urrian eskaini duzue aurtengo biraren azken kontzertua; non egon zarete gusturen?

Su ta Garrekin Elgoibarren, edo gustuko ditugun bestelako taldeekin. Adibidez, Bergarako Kartzela Zaharrean Sofa eta Dena taldeekin jo genuen.

Abenduan Ahotsenean jo ondoren, baduzue bestelako asmorik taldearendako?

Zuzenean jotzea. Normalean ez diegu ezezkorik ematen joteko aukerei eta beti gaude zabalik proposamenetarako. Bestalde, sortzen ere hasi gara dagoeneko. Ez dugu erabaki zer izango den, diskoa ala singlea, baina sortzen ari gara eta hori garrantzitsua da. Sortutako lanaren helburua gure buruak asebetetzea izaten da, eta ez da erraza izaten oso zorrotzak garelako horretan.

guretzat zer bait berezia ere bada guri disko fisikoa eskatzea. Tabernetan edota aretoetan lagatzeko ere aproposa da... Kasu gutxi izan arren, CD fisikoa ateratzeak mezezi zuela erabaki genuen. Ehun ale atera genituen, hogeitik behera geratzen dira eta oraingoz ez dugu kopia gehiago ateratzeko asmorik.

Gezur mila singlea uda aurretik dago entzungai, zelako harrera izaten ari da ?

Harrera oso ona izan dugu. Hori ikusi dugu plataforma digitaletan, oso ondo kontabilizatzen dira entzunaldiak. Spotifyn, adibidez, erreproduktzio gehien izan dituen Muzak-en abestia da. Horrez aparte, kritika onak izan ditugu, batez ere gertuko jendearenak. Gure soinutik jarraitzen dugu. Taldearen nortasun propioa erakusten du.

Zein da zuen nortasun hori?

Hirurok oso gaztetatik izan dugu bereziki distorsionatutako gitarrekiko predilekzioa hori, talde ezberdinak entzuten ditugun arren. Nik Pop-Rock-era egin izan dut beti gehiago eta Ruben eta Sagarrek Metal-era (progresiboa, death, doom...). Gainera, proiektu oso ezberdinetan izandakoak gara Muzak sortu aurretik.

Zergatik uste duzu azken single horrek izan duela arrakastarik handiena?

Musikari moduan pauso txikiak ematen goaz pixkanaka-pixkanaka eta geroago eta difusio handiagoa lortzen ari gara. Horrez

"Gezur mila da erreproduktzio gehien dituen Muzak-en abestia"

"Krisi ekologikoak krisi sozialak eragiten ditu gizarte kapitalista honetan"

JOKIN BERGARA SOZIOLOGOA ETA IDAZLEA

Gogoeta soziologikoak, politikoak eta pertsonalak tartekatuz, trantsizio ekosozialaren tentsio-ardatzak aurkezten ditu eibartarrak 'Adaxka lehorrak' liburuxkan. Abenduaren 8an, 17:30ean, izango da aurkezpena.

"Adaxka lehorrak. Talka ekosozialaren biharamun politikoak" da liburuaren izenburua. Biharamun horiek bizi ditugu dagoe-neko? Heltzeaz daude? Zein momentutan aurkitzen gara?

Talka ekosozial hori pizten ari gara eta biharamunaren kontzeptua erabili dut, modu metaforiko baten esateko horrek ondorio sozial eta politiko batzuk ekarriko dituela eta ekartzen ari dela jada. Krisi ekologikoan sakondu ahala, geroz eta maiztasun eta indar gehiagorekin joango gara bere ondorioak ikusten, bai klimaren aldetik, bai krisi energetikoaren aldetik, baita ondorio politikoen aldetik ere. Azken horrekin lotzen dira faxismoaren gorakada eta Europako egoera gatazkatsu eta gerrazalea, besteak beste.

Krisi ekologikoa aztertzeaz gain, zer bide zabaldu daitezkeen irudikatzen saiatu zara. Zeintzuk dira bide horiek?

Gai hau bada beldurra sortu dezakeen gai bat. Batzuek paralizatzailea dela diote. Beraz, eraldaketan sinesten dugunok, eraldaketa horri bizirik eusteko aldarria egiten dugu liburuan. Eta zer bide hartu dezakegun? Hainbat proposamen egiten dira. Adibidez, industria, gaur ezagutzen dugun bezala (Debabarrean makina-erremintari eta automozioari oso lotuta dagoena), oso sektore kutsatzailea da, eta liburuan ariketa bat egiten da birmoldaketa nola egin pentsatzeko, ikuspegi demokratiko batetik. Hau da, trantsizio ekosoziala erabiltzea enpresak

"Krisi ekologikoaren ondorio dira faxismoaren gorakada eta Europako egoera gatazkatsua"

demokratikoagoak izateko (aberrastasuna gehiago banatzeko lan-gileen artean, adibidez). Horrela, behar dugun trantsizio kulturalari bideratuta dago liburuaren zati handi bat. Gaur egun 'bitzita ona' bezala identifikatzen dugun horri eta gure identitatea eraikitzeo erabiltzen ditugun ekintza horiei kritika egiten zaie (kontsumoari, oporretara joateko 10 orduko bidaiak egiteari, auto eta etxe berriak erosteari...). Gure identitatea eraikitzeo beste mekanismo batzuen beharra agertzen da, lasaiago bizitzeko aldarria, eta gutxiagorekin bizitzea ez dela zertan izan okerrago bizitzea, baizik eta hobeto bizitzea, denbora gehiago izan dezakegulako lagunekin egoteko, gurasoak edo seme-alabak zaintzeko, irakurtzeko edo gustuko dugun edozer gauza egiteko.

Beraz, trantsizio ekosozialak hainbat arlo ezberdin zeharkatzen ditu?



Abenduaren 8an aurkeztuko du liburua Bergarak Durangoko Azokan. TXALAPARTA

Bai, noski. Hori da krisi ekosozialaren ideia. Hau da, badago krisi material bat, ekologikoa bezala definitu daitekeena zientifikoki (klima aldaketa, biodibertsitatearen galera, energia krisia, baliabideen agortzea...); eta gero, alde soziala dago, oinarri material guzti horren krisiak krisi sozialak eragiten dituelako sistema kapitalista honetan. Hor sartzen da gizartea beste modu baten antolatzeke eztabaida eta, noski, politika, soziologia, historia, ekonomia, zuzenbidea... Denetik, azken neurrian.

Liburua Euskal Herrian kokatzen da edo mundu mailako arazoak lantzen dituzu?

Krisi ekosozialari Euskal Herritik begiratzen saiatu naiz, jakinda maila globalean adierazten den gaia dela. Gure herriaren ezaugarriak kontuan hartuta, Euskal Herrira ekartzen saiatu naiz, eta honek gure herrian zein tentsio

nagusi sortzen dituen. Adibidez, energia berriztagarrien inguruan dagoen eztabaida hau da: "jarriko ditugu?", "ez?", "non?". Nire ustez, zabaldu behar den eztabaida hurrengo izan behar da: Energia berriztagarriak lortzeko behar ditugun mineralak hegoalde globaletik ateratzen ditugu, nolabaiteko neoestraktibismo prozesuetatik, eta gure trantsizio berdea pentsatzeko herrialde horiekin nola harremandu beharko ginatekeen eztabaidatu beharko genuke. Adibidez, Ekuadorreko Amazonian badago egur mota bat oso ona omen dena haize-erroten

"Ekuadorreko Amazonia ari gara deforestatzen gure trantsizio berdea egiteko"

palak ekoizteko (asko irauten baitute eta ez direlako azkar higitzen). Orduan, gertatzen ari dena da Europako eta AEB-ko enpresak sartu direla han lehengai hori erostera eta, ondorioz, Ekuadorreko Amazonia ari garela deforestatzen gure trantsizio berdea egiteko. Paradoxikoa da.

Liburuxka arina egiten saiatu zarela aipatu izan duzu. Gaia gehiago garatzeko gogoarekin geratu zara?

Liburuxka hauen helburua (eta hortik bere formatua) eserialdi baten irakurtzeko modukoak izatea da. Hau da, arratsalde baten hiru-lau ordutan irakurtzeko modukoak izatea. Idazteko eskatu zidatenean hori izan zen arazoa: zertan zentratu, zeri garrantzia eman... Orduan, liburuxka motza denez, laburtzea pixka bat kostatu zait eta, agian, gauza batzuk behar duten sakontasunik gabe joan dira, baina tira, sintetizatze lan batek hori eskatzen du.

Beraz, oso sakona den gai bati heltzeko balio dezake? Krisi ekosozialaren inguruan sakontzen hasteko baliagarria da?

Hori da. Ez da gaiaren inguruko doktoretza tesi bat. Gehiago da gai honetan hasi nahi duenak edo interesa duenak hartzeko eta modu azkar baten gaian sarrera bat edukitzeko.

Ahotseneako musika egitaraua

Asteazkena 06



NØGEN 11:00-11:30

KONPOST 12:10-12:40

ESANEZIN 13:20-13:50

LILLO 14:30-15:00

POSTAL KOLEKZIONISTAK 16:50-17:20

AKALEIA 18:00-18:30

YOGURINHA BOROVA 19:10-19:40

MARLIK 20:20-20:50

ARIMA 21:30-22:00

Osteguna 07

XABI SAN SEBASTIAN 13:20-13:50

KADIRA 14:30-15:00

BRAULIO 15:40-16:10

MURGI 16:50-17:20



MOXAL 18:00-18:30

ZATIBI 19:10-19:40

ZEKER 20:20-20:50

EZEZEZ 21:30-22:00

Ostirala 08

LOTURA 11:00-11:30

EIDER 12:10-12:40

EIRE 13:20-13:50

MIREN ETA ROBERTO

ETXEBARRIA 14:30-15:00

NAKAR 15:40-16:10

ITHAKA 16:50-17:20



SARA ZOZAYA 18:00-18:30

TXOPET 19:10-19:40

SILITIA 20:20-20:50



TOC 21:30-22:00

Larunbata 09

KE LEPO 11:00-11:30

TRB 12:10-12:40

AMORANTE 13:20-13:50

LEIHOTIKAN 14:30-15:00

HAIZE-ARROSA 15:40-16:10

OTOI 16:50-17:20



ETXEPE 18:00-18:30

RUKULA 19:10-19:40

FELINE 20:20-20:50



IBIL BEDI 21:30-22:00

Igandea 10

INTZA 11:00-11:30



MAMU 12:10-12:40

KARMA 13:20-13:50

HAIRA 14:30-15:00

MUZAK 15:40-16:10

KUMA NO MOTOR 16:50-17:20



MODUS OPERANDI 18:00-18:30

KEMARONTE 19:10-19:40

MUARE 20:20-20:50

JABI PATXON ETA KOFRADIA

ROCK 21:30-22:00

“Argazkiei esker dirua irabazi dut, baina gaur egun afizioa da”

Óscar Blanco · Argazkilaria



Ermua Antzokiko lehenengo ilarako 13. jarlekua ez dago salgai, ostiraletan burutzen diren ekitaldietan Óscar Blanco ermuarrarentzako erreserbatuta baitago. Honek, kamera hartuta, oholta gainera artisten erretratoak ateratzen ditu, herrira datozen abeslarien, aktoreen, bakarrizketarien zein bertsolarien testigantza-grafikoa jasoz.

Testua **DORLETA VIDAL** · Argazkiak **ÓSCAR BLANCO**

Nolatan hasi zinen argazkigintzan?

Gustukoa neukan argazkiak ateratzea, eta herrian zegoen Ostarku kolektibora hurbildu nintzen. Kuartel zaharrean argazkiak errebelatzeko laborategia zeukaten, eta han ezagutu nuen Santos Vega. Ikastaro bat egin nuen berarekin Torretan, eta argazki-rallyetan elkarrekin parte hartzen hasi ginen. Gero eta zaletasun handiagoa nuen, eta sasoi batean dirua irabazi nuen erretratuei esker: ezkontzetara joaten nintzen argazkilaria, hainbat agentziarentzako lanean hasi nintzen... Gaur egun zaletasuna baino ez da.

Baina hala ere, ostiralero zaude Antzokiko lehen ilaran, kamera eskuan...

Bai, zortzi edo bederatzi urte inguru daramatzat zeregin horretan. Santosen ekimena izan zen: urtebetez Ermura zetozen talde eta artisten argazkiak atera zituen, eta gero erakusketa bat egin zuen Lobianon. Berak utzitakoan, nik berreskuratu nahi izan nuen, iruditzen zaidalako herriarentzako interesgarria dela etorri diren artisten artxibo modukoa izatea. Patxi Lópezekin hitz egin nuen, eta aurrera egin genuen, baina lan erabat boluntarioa da.

Zein artistarekin estreinatu zinen?

Mikel Erentxunekin, zine zaharrean, Santosek eskatuta. **Ostiraleko hitzordu hauek denbora asko kentzen dizute?**



Óscar Blanco Alberto Contador txirrindulariarekin.

Zertxobait, bai. Ekitaldira joan baino lehen informazioa bilatzen dut, jakiteko zer topatuko dudana, zer nolako argiztapena egongo den, ze kolore... Argazkiak atera eta gero aukeraketa egin behar da, aukeraturako irudiak

txukun jarri, eta Udalera bidaltzen ditut, webgunean jartzeko. Eta prozesu horrek denbora eskatzen du. Bestalde, urte bukaeran erakusketa egiten dut nik ere, ekitaldi guztien argazkiak ikusgai jarri. Azken urteotan ez dut izan erakusketa egiteko aukerarik, pandemia dela-eta lehenengo, eta gero liburutegia jarri dutelako Lobianoko erakusketa-gelan, baina tira... ahal bezain laster ekingo diogu berriro.

Erakusketarik egin duzu Ermutik kanpo?

Bai, Eibarren, Eibar Futbol Taldeak lehenengo mailara igo zenean, esaterako. Txirrindularitzaren inguruan ere baten bat egin izan dut, eta kirol-esparru hori da gehien gustatzen zaidana. Lokatza izango duen ziklo-krosa baino plan hobirik ez dago! Uztailean Tourra eta abuztuan Espainiako Vueltara joaten naiz ere, semearekin: bi hitzordu horien inguruan antolatzen ditugu udako oporrak! Etxean kokoteraino daude!

Argazkilaritza analogikoarekin hasi zinen?

Bai, eta asko gustatzen zitzaidan, tartean errebelatze-prozesua bera ere. Digitalera aldatzea kostatu zitzaidan, eta duela gutxi beste pauso bat eman dut eta, kostata, ispilu gabeko kamera erosi dut.

Zergatik diozu kostata izan dela?

Zeregin bati tamaina hartzen diozunean, kostatu egiten delako aldatzea. Ispilu gabeko kamerek ez daukate bisorerik, pantaila baizik, eta hori ez zait asko gustatzen; baina argazkia ateratzerakoan ez dute zaratarik ateratzen, eta hori eskertzerako da. Antzokian arazoak izan ditut artista batzuekin, Lolitarekin esaterako: bere bakarriketa hasita zegoenean moztu egin zuen nik argazki gehiago ez egiteko eskatzeko. Zelako lotsa!

Atera dituzun argazki guztietatik bat aukeratu behar-ko bazenu...

Bertso saioak erronka dira beti, zaila delako argazki ezberdin bat egitea, baina nire argazkirik kuttunena da Maialen Lujanbiori egin nion bat, oholtza gainean pentsakor, duela urte mordoxka.

Badago lortu ez duzunik?

Bai, agentziarekin lanean hasi nintzenean, Eibar Futbol Taldeko nire lehen partiduan argazki guztiak desenfokatuta irten zitzaizkidan... Denbora luzean ez



zidaten berriro deitu!

Egiteko daukazuna...?

El Brujori eta El Drogasi erretratua ateratzea lortu eta gero, Paris-Roubaixera joateko ametsa daukat.

Badakizu zenbat argazki atera dituzun?

Ez dakit esaten, baina denak gordetzen ditut, .jpg eta .raw formatuetan. Kontzertu batean agian 2.000 argazki ateratzen ditut. Pentsa!

Instagrameko kontuan dituzun argazki berriek ez dute ur-marka, zer dela-eta erabaki duzu ez ipintzea?

Uste dut horrek argazkia zikintzen duela, eta argazkia lapurtu nahi dizutenek berdin-berdin lapurtuko dute. Askotan topatu ditut nire argazkiak espero ez nuen lekuetan, eta amorrua ematen du... Berdin da zenbat denbora pasatu den: zure argazki bat ikusten duzunean badakizu zurea dela.

Infreñu Taberna
Kardenal Orbe plaza
943 174584
www.infretaberna.com

ileapaindegia
Silvia
peluqueria

Asteartetik ostiralera
9:00-12:00 15:00-19:00
Larunbata 8:30-13:00

943 170474

688819336



Ermua Antzokia, eliza, merkatu plaza... Abeletxe egoitza ostetik, Otaerre parajetik erretratatuta.
Argazkilaria: Mikel Madarieta.

Beldurrak piztu, iluntasuna bizi!

Gau Beltza urriaren 31ren bueltan ospatzen da Euskal Herrian. Ohitura zaharrak berreskuratuz, jaiak berrasmatzen ari gara herriz herri.

Egunerokoarekin hautsi eta bestelako bizipenak izateko aukera eskaintzen digute jaiak. Elkarrekin ospatuta, gainera, kohesio soziala indartzeko tresna baliotsua dira, komunitatea sortzeko. Jaiak euskaratik eta euskaraz antolatu eta bizitzearen garrantziaz jabetuta, "Gau beltza" edo "Arimen gaua" berreskuratze bideari batu gara.

Udazkenetik negurako egun gero eta ilunagoen bueltan, erritu ezberdinak egin izan dira Europa osoan. Baita Euskal Herrian ere. Urtearen heriotza, uzta bilketa, hildako senideen oroimena... barrura begirako ariketan jartzen gaitu urtaro honek. Aldi berean, iluntasunak eta heriotzaren gaiak elkar beldurtzeko jolasean aritzeko parada eman ohi digu.

Euskal Herriko erritual zaharrak berreskuratuz eta berriak sortzeko ahaleaginean, herriz herri hasiak gara berriz ere udazkeneko egun ilunetako jaiak antolatzeko: kalabazak hustu, trapu zaharrekin aurpegia estali, beldurra eragin.

Bizipenak aldatu egin dira eta, honekin batera, jaiak eta tradizioak. Hauek iraungo badute, gaurkotasunera egokitzen direlako izango da; eta horrela ari da zabaltzen Gau Beltza Euskal Herrian.

Antzinakoak kontuan hartuta, guretik nahi dugu Gau Beltza ospatu, gaur egungo ikuspegiak ematen dizkigun aukerak eta erakargarritasuna baliatuta.

Gauzak horrela, aurten Ongarai Eskolan beldurraren kutxa sortu dugu. Ikasleekin beldurrak landu, bakoitzak berea paper zati batean idatzi eta beldurraren kutxan bildu ditugu gu guztion beldurrak. Urriaren 31n, astearte, patioan elkartu ginen eskolako kide guztiak, beldurren kutxan genituen beldur guztiak sutan erretzeko. Oso ondo pasatu genuen eta urtero errepikatuko dugun ekintza izango da, zalantzarik gabe.

Lan kooperatiboa

Kaixo guztioi: Hemen gatzoz Ongarai Eskolako 4 urtekoak...



Ikasturte honetan,

ikasleekin lan kooperatiboa egiten ikasten ari gara. Ostiralero mahai jolas kooperatiboak eta dinamikak egiten ditugu elkar laguntzeko eta jolasteko. Elkarrekin askoz dibertigarriagoa da! Primeran gabilta! Barre asko egiten dugu eta gainera jolasten ari garen bitartean ikasten dugu gure arteko harremanetan sakontzen, txandak errespetatzen, batzuetan irabazten, beste batzuetan galtzen, talde kohesioa... Eta gelan giro polita lortzen dugu.

Mugikortasun-tailerra



2023ko Mugikortasunaren Europako astearen barruan, eta mugikortasun jasangarria sustatzeko asmoz, Ongarai ikastetxeko LHko 3. mailako ikasleek gai horri buruzko tailerra egin zuten. Garraibideak aztertu zituzten eta haien eragina zein den ikusi zuten; eskolara joateko zein garraio erabiltzen duten

azaldu zuten; eta, azkenik, marrazkiak egin zituzten, Ermua nolakoa izatea nahi zuten adierazteko. Denek bat egin zuten beren herria leku atsegina eta kutsadurarik gabekoa irudikatzean. Gure ardura da horrelakoa izatea.

**OSASUNA • ESTETIKA
EDERTASUNA**

Marfil

Goienkale 12 *Ilargi-eguneko bit
baino gehiago!!*

943 17 28 09

Egokitutako burua
zarbitzeko konketa



Caperos

Probaleku z/g
(ERMUA)

**Pintxoak
Razioak
Kaxolak**

**Plater konbinatuak
Ogitartekoak**

699 292 043
636 549 154

Cooperativa Ermuesa dendia



Detalle de la fachada Oeste de la Torre de Loviano.

Herritar batzuen ekimenez eta Claudia Gorosabelen kargupian, abadetxian behekaldia izan zan Cooperativa Ermuesan lehen kokapena, jateko kontuetara bideratuta. Leku umela eta urria zala-eta, Zubiaurre 4an beste denda bat zabaldu zeben: oihalak, taillarretarako mahoizko buzuak, izarak, zamaauak, ohagaiñekuak, kurtiñak, sukaldarako tresneria... herrixa batera-batera hazten zoian eta etxe barri ugari eraiki zan, hornitzeko gosez danak.

Denda biak bat egin zeben 1969n, Eroski izenarekin eta Torrekua kalera lekualdatu ziran. 1975ean Inmaculada Solozabalek erosi zuen lokala, liburu-denda lez zabaltzeko; ordutik hona lora-, margo- eta arropa-denda izan da.



Enter
INFORMÁTICA

SALMENTAK
IRAKASKUNTZA
ZERBITZU TEKNIKOA

VI. Mendeurrena 19, behea
943 17 90 37
enter@informaticaenter.com

KARABIXA

KARABIXA KAFETEGIA

Egunero zabalik
08:30etik aurrera

Proba-Leku
Ileapaindegia - Estetika

Probaleku 3, 1A
Tel.
943170542



BEGOÑA FERNÁNDEZ

ERMUKO KOORDINADORA FEMINISTAKO KIDEA

Indarkeria matxistarik gabeko bizitzak erdigunean

"Premiazkoa da gure planetarako eta gure bizitzetarako ezinbestekoak diren zainketez hausnarketa egitea"

Zaintzak bizitzarako duen garrantziari buruzko diskurtsoa ordu oro entzuten dugu. Erakundeek ere leloa bereganatu nahi dute, edukiz husteko, baina Denon Bizitzak Erdigunean plataforma feministak urteak daramatza lanean egungo sistema kapitalista, matxista, arrazista eta merkantilista errotik aldatzeko, emakumeen diskriminazioa betiketzen baitu, langileak esplotatzen dituen negozio arrazista hutsa delako eta, denon ongizateaz eta bizitzaz kezkatu beharrean, pertsona asko kanpoan uzten dituelako.

Horregatik, azaroaren 30ean greba feminista orokorra egingo dugu. Premiazkoa da gure planetarako eta gure bizitzetarako ezinbestekoak diren zainketez hausnarketa egitea, baita sindikatuek, merkatariak, eragileek... jendarte osoak, zaintza-sistema publiko eta komunitario baten alde jardutea ere, eraso sexistarik gabekoa.

Azaroaren 25a, Indarkeria Matxistaren Aurkako Nazioarteko Egunaren aurrean, Ermuko Plataforma Feministatik arreta berezia jartzen dugu zainketa-sistema horren alderik latzena islatzeko. Bere barnean emakume zaurgarrien aurkako indarkeria espezifiko eta ikusezina egotea ahalbidetzen du: beren etxeetan edo egoitzatan dauden emakume ezinduak eta nagusiak, emakume zaintzaileak, bereziki, Atzerriartasun Legeak harrapatuta dauden langile migranteak, espetxeetan edo zentro ezberdinetan dauden emakumeak, eta abar luze bat.

Ez izan zalantzarik, ez jarri aitzakiarik eta egin greba edo borroka, zuk ahal duzun moduan, denok batera. Bizitzan zehar askotan zaintzen gaituzte eta zaintzen dugu, denok. Ez da izan behar maitasunagatik egiten den zerbait, ezta batzuen sakrifizioa ere ez. Ez da "emakumeen kontua", ezta familiaren betebeharra ere ez. Horrek eskubide kolektiboa izan behar du; denona, denontzat, kalitatezko zaintza.

Denak ez du balio. Beraz, serio har dezagun gaia.

ROBERTO GARCÍA

San Millán de Yécoran jaio zen (Errioxan) duela 69 urte. Sei urterekin etorri zen Ermura. Hiru anai-arreben artean, gazteena. Bi seme-alaba ditu. Gaztetan musika talde bat sortu zuen herriko hiru lagunekin batera, Constelación. Gaur egun, bere gitarrak eta ilobak dira bere zaletasun handienak

Testua **DORLETA VIDAL**

Nola gogoratzen duzu haurtzaroa?

Gaiztakerietan ibiltzen nintzen beti... Gogoan daukat geltoki inguruko ortuetan errege-sagar itzelak egoten zirela, eta lapurretan ibiltzen nintzen beti. Egun guztia korriketan ematen nuen, ihesean...

Eta gaztaroa?

Ezin hobeto pasatu nuen, eta den-dena errepikatuko nuke. Rafa Ceballos laguna izan dut beti ondoan.

Umetan zer izan nahi zenuen?

Musikaria, zalantzarik gabe.

Ikasteko aukerarik izan zenuen?

Maisutza industrialeko ikasketak egiten hasi nintzen Armeria Eskolan, baina musika sartu zitzaidan buruan, eta ikasketak utzi nituen. Ezkondu eta gero atera nuen titulua.

Nolatan hasi zinen musikan?

Lagun batzuk elkartu ginen, talde bat sortzeko asmoarekin, eta musika ikasten hasi nintzen Eibarko akademia batean. Segituan utzi nuen, solfoea ez zitzaidalako batere gustatzen, eta hamazazpi urterekin lehen gitarra elektrikoa erosi nuen, Zarautzen. Nire kabuz joan nintzen ikasten gero.

Nola deitzen zen zuen taldea?

Constelación, eta bertan jotzen genuen Francisco Salgadok, Antonio Cidek, Eutimio Recio eta nik.

Zein musika mota jotzen zenuen?

Deep Purple, Uriah Heep, Black Sabbath, Led Zeppelin edota Van Halen bezalako taldeen abestiak. Makina bat kontzertu egin genituen.

Horrekin ateratzen zenuetan bizimodua?



Diru dezente irabazi genuen, baina dena gastatzen genuen. Pentsa: 1972an 53.000 pezetako Fender Stratocaster bat erosi nuen! Dirutza zen! Hala ere, bakoitzak bere lana zeukan. Nik G.A.C.n egiten nuen lan, Eibarren.

Zer dela-eta utzi zenioten jotzeari?

Soldadutza egitera joan ginenean taldea puskatu zen, eta bueltan ez ginen berreskuratzeko gai izan.

Eta ordutik aurrera G.A.C.n?

Ez, 14 bat urte egon nintzen bertan. Gero supermerkatua ipini nuen emaztearekin batera, gaur egun Dakota

SEHIGA
PROTECCIÓN LABORAL, BARRIOS Y OBRERÍA

Goienkale kalea (Ermua)
Tel: 943 172 454
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

ZERMik
SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT

ZERMik INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoa garatzen espezializatua dagoen ingeniaritza-enpresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

www.zermik.com
Usaetxe plaza 6-8, behea
Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)
Telf: 943 23 10 12

SAN PELAYO
Zuri egokitzen den odontologia
La odontología que se adapta a ti

Dra. OLATZ GARCIA ARREGUI
Programa
Apodo Dental
Infantil
Gobernador Vitoria

943 17 04 04
info@odonticasanpelayo.com
San Pelayo Zeharkalea 5
48100 Ermua (Bizkaia)

taberna dagoen lekuan. Hondamendia izan zen! Dena galdu genuen! Gero komertzial moduan hasi nintzen, gaixotasun arazoak tarteko jubilatatu ninduten arte.

Zertan ematen duzu orain denbora?

Gitarra jotzen jarraitzen dut, etxean. Horrekin gozatzten dut. Eta emaztea zirikatzen ere...

Nola ezagutu zenuen emaztea?

Arrebaren gozotegian egin nuen lan sasoi batean, San Inazio, eta emaztea aurretik pasatzen zen egunero eskolatik bueltan. Nik 18 urte nituen eta berak 14, baina orduan ezagutu ginen.

Egunero kale egin gabe egiten duzun hori...

Loak hartu baino lehen, ordu erdiz edo ordubetez musika entzuten dut ohean egunero, kaskoak jarrita,

"Pena ematen dit hiltzeak gauza asko ezagutu barik, teknologiaren alorrean, esaterako"



Roberto, behean eskuman, Constelación taldeko kideekin.

"Loak hartu aurretik, ordubetez entzuten dut musika egunero"

mugikorreko aplikazio batekin.

Ikusi duzun azken kontzertua?

Tierra Santa, Bilboko Antzokian. Dena den, zuzeneko bat nabarmendu beharko banu, Urian Heep-ena aukeratuko nuke. Eta datorren ekainean Deep Purple ikustera joango naiz.

Bidaiatzea gustatzen zaizu?

Komertziala nintzenez kilometro asko egin nituen, eta nekatuta nago bidaiatzeaz, egia esan. Txekiar Errepublikara joango nintzateke, adibidez, bidaiak kulturalak gustatzen zaizkit-eta.

Jatun ona zara?

Bai, baina gauza asko galarazi dizkirate. Edozer jan ahalko banu, *caparroiak* aukeratuko nituzke.

Zerk eragiten dizu barrea?

Umeen xalotasunak. Umeek zorutzen naute! Bilobarekin orduak ematen ditut lurrean jolasten, gero altxatzea kostatzen zaidan arren....

Zerk ateratzen zaitu zure onetik?

Oso gauza gutxik. Lehen edozerk jartzen ninduen sutan baina, bihotzeko arazoa izan nuenetik, lasai hartzen ditut gauzak, ez naiz alferrik haserretzen.

Ondo moldatzen zara teknologia berriein?

Bai, nahiko ondo. Musikako aplikazio morderoxka ditut mugikorrean, eta orain ingelesa ikasteko aplikazioa bat instalatu dut, alaba tematu delako. Dena den, teknologian gauzak oso arin aldatzen dira.

Zein izan da inoiz hartu duzun erabakirik zailena?

Ez zait inoiz kostatu erabakiak hartzea, baina bizi izan dudana egoerarik latzena denda itxi genuenean izan zen. Askok kostatu zitzaidan buelta ematea.


Zerbait egin ez izanaren pena duzu?

Pena ematen dit pentsatzeak gauza asko ezagutu barik hilko naizela, teknologiaren esparruan, esaterako. Gainera, ziur nago ez gaudela bakarrik unibertsoan, eta James teleskopioari esker gauza berriak topatuko dira. Seguru.



Udal Euskaltegia
 Teresa Murga Eraikina
 Goienkale z/g 2. solairua
 ERMUA · 943 170 925
ermukoudaleuskaltegia@gmail.com


LEIRE MAYORA
PODOLOGOIA
 Erdikokale 1, 1. A
 48260 Ermua
 ☎ 943 17 47 44


NEREA IÑIGUEZ
HORTZ KLINIKA

 San Inazio 4 - Ermua
 943 030 512 / niklinika@gmail.com

1961

E R M U A

Doroteo Olañeta eta Justina Antxia euron bi alabekin, Mari Fran eta Conchirekin, geltoki gaineko etxe ondoko landan. “Pinta”

behia eta haren txahal txiki bikiak ere kamarari begira. Behi bakarra zuten eta horrek estimazio handia zuen umeei bularra kendu eta biberioan behi-esnea ematen zitzaien familien artean.

Zergaitik? Ba ahaleginez behi bakarraren esnea eman behar zitzaie la uste zelako eta, kortan behi bakarra egotean gainontzeko behien esnearekin nahasteko arriskurik ez zegoelako.



1982

M A L L A B I A

Argazki hau 1972 ingurukoa da eta bertan Mallabiko eskolako neska-mutilak ageri dira. Hauek dira argazkian agertzen direnak: Bixente Aranburu, Mikel Garitagoitia, German Landa, Jose Martin Gallastegi, Jabier Ziarsolo, Carlos Antxia, Rosa Mari Moreno, Eli Txurruka, Izaskun Garitaonandia, Alazne Mugarza, Pili Garcia, Ana Telleria eta Idoia Garitaonandia.

IRAGARKI LABURRAK

Antxitxiketan begirale taldea langile bila dabil. Baldintzak: euskara maila altua, DBHn errefortzu akademikoa emateko gaitasuna, umeen taldeak dinamizatzeko gaitasuna, berehalako prestutasuna. Baloratuko da: begirale titulua eta hezkuntzarekin lotutako ikasketak. Interesa dutenek: antxitxiketan@antxitxiketan.com


Neska euskalduna eskaintzen da haurrak zaintzeko, goizez zein arratsaldez. Esperientziarekin eta magisteritza ikasketekin. © 648 625 209.

Haurrak zaintzeko neska eskaintzen da, esperientziaduna eta Haur Hezkuntzan graduatua. © 685 584 587

Matematikako, fisikako eta kimikako klase partikularrak eskaintzen dira DBHn dauden ikasleentzat © 688 683 655.



Iragarkia edo zorion-agurra kaleratzeko, bidali mezu elektronikoa helbide honetara: drogeten@gmail.com
Azken eguna: [Abenduaren 15ean](#).



Abenduaren 7an
Zorionak ama, 100 urte!! Musu handi bat familia guztiaren partez.



Azaroaren 24an
Zorionak **Mikel**!!! Gure etxeko gizontxoak 6 urte!!! Ondo pasa egune!! Etxeko denon partez muxu erraldoi bat!!



Azaroaren 14an
Zorionak sorgintxo zure 6. urtebetetzean familia guztiaren partez. Askoi maite zaitugu!!!!



Abenduaren 3an
Bi urte gure bizitza hankaz gora jarri zenuela. Zorionak **Danel**!!! Izugarri maite zaitugu!!! Aitaxo eta amaxoren partez musu eta besarkada potolo bat.

ARRIETA CORDEVI
Etxetresna elektrikoak,
telebistak,
musika-ekipoak...
...prezio eta kalitate
ezin hobean.
VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA

HARATEGIA - URDAITEGIA
MIGUEL
BERTAKO OKELAK
ETXEREN EGINDAKO TXORIZO TXISTORRA ODOLOSTE ETA KROKETAK
PROBLEKU 3 - 943 170563
ERMUA

Komunitateak
San Pelayo
Aholkularitza juridikoa
Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

CAPRI
PIZZERIA
943 03 33 15

aral
Luis Cañas
Amaren
Cair
Ehun
Txakoli Astobiza
Pazo Señorans
Cava Oriol Rossell
aral@aral97.com | Pol.Goitondo-Goilhoa, Parc.7 - Pob.1 | 48269 Mallabia (Bizkaia)

FAMILIA
LUIS CAÑAS
BODEGAS Y VINO
nitida
T.943176075

Cair
Casar de Burbia
Bodegas Valdemar
García de Olano
Manzanos Wines
Pemorá Ricard Wines
Faustino García Martínez.

RIF
ITURGINTZA KONPONKETAK
Marques de Valdespina 16
ERMUA
605 71 10 81 / 688 71 27 10

ZINEA

Hilaren 2tik 4ra:

"Mamacruz" + "Un amor"

Hilaren 9tik 11ra:

"El sueño de la sultana" + "El maestro que prometió el mar"

Hilaren 16tik 18ra:

"Sabén aquell" + "Napoleón"

Hilaren 23an:

"La ermita"

Hilaren 30ean:

"El amor de Andrea"
Ermua Antzokian.
Hainbat ordutegi.

ZINE-KLUBA

Hilak 7:

"Orlando"

Hilak 14:

"El viejo roble"

Hilak 21:

"Teresa"

Hilak 28:

"Heroico"

Ermua Antzokian. 20:30ean.

HAURRENTZAKO

ZINEA

Hilak 3:

"Trolls 3"

Hilak 10:

"Boo Kwai eta museoaren lapurreta"

Hilak 17:

"La navidad en sus manos"
Ermua Antzokian. 17:00etan.

MUSIKA

Hila k 8:

Kontzertua: _juno. 20:30ean.
Ermua Antzokian. Sarrera: 12€

Hilak 16:

Blues kontzertua: Sweet
Marta & Johnny Big Stone.
20:00etan. Lobiano
Kulturgunean. Sarrera: 10.€.

Hilak 20:

Kontzertua: Alboka Musika
Eskolako ikasleak. 19:00etan.
Ermua Antzokian. Doan.

Hilak 23:

Kontzertua: Xut. 20:00etan.
Lobiano Kulturgunean.
Sarrera: 5 €.

Hilak 29:

Kontzertua: Valeria Castro.
20:30ean. Ermua Antzokian.
Sarrera: 15 €.

ANTZERKIA

Hilak 1:

"Burlas de amor de Doña Barroco", Coribante Teatroaren
eskutik. 20:30ean. Ermua
Antzokian. Sarrera: 10.€.

Hilak 15:

"Nunca he estado en Dublín",
Tentazioa konpainiaren
eskutik. 20:30ean. Ermua
Antzokian. Sarrera: 10.€.

Hilak 17:

Umorezko bakarrizketa:
"Señoricidio", Irantzu Vare-
laren eskutik. 19:00etan. Sa-
rrerak: 5 €. Lobiano Kultur-

gunean.

Hilak 22:

"El traje", Javier Rodríguez
eta Luis Bermejorekin.
20:30ean. Ermua Antzokian.
Sarrera: 15 €

DANTZA

Hilak 21:

Txindurri taldea. 18:00etan.
Ermua Antzokian. Sarrera
dohainik.

**GABONETAKO
HAUR KANPAINA**

Hilak 17:

Ermuchef: Haurrentzako
sukaldaritzza-ekitaldia.
16:00etatik 19:00etara. Orbe
Kardinalaren plazan.

Hilak 24:

Olentzero eta Mari Domini-
gi txiki (kalejira). 11:00etan
Orbe Kardinalaren plazatik.

**Abenduaren 26tik
urtarrilaren 4ra:**

Gabonetako haur parkea:
puzgarriak, ohe elastikoak,
ludoteka, bideo-konsolak,
jumping tailerrak...11:00eta-
tik 13:00etara eta 16:00etatik
20:00etara. Sarrera: 2 €.

Hilak 27:

"Esna" ikuskizuna, Marie de
Jongh eta Doos kolektibo-
aren eskutik. 17:00etan. Ermua
Antzokian. Sarrera: 4 €.

Hilak 30:

"Loti ederrak", Glu Glu Pro-
dukzioen eskutik. 17:00etan.
Ermua Antzokian. Sarrera: 4€.

Hilak 31:

Olentzero (kalejira).
18:00etatik aurrera. Orbe
Kardinalaren plazatik.

Urtarrilaren 3an:

"Goazen 10.0", Pausoka-
ren eskutik. 16:00etan eta
18:00etan. Ermua Antzokian.
Sarrera: 6 €.

Urtarrilaren 5ean:

Errege Magoen kabalgata.
18:00etatik aurrera. San Lo-
renzo ikastetxetik.

**HAURRENTZAKO
BESTE EKITALDI
BATZUK**

Hilak 2:

Ipuin-kontaketa ingele-
sez. 17:30ean. Lobiano
Kulturgunean.

Hilak 23:

Ipuin-kontaketa. 17:30ean.
Lobiano Kulturgunean.

BESTELAKOAK

Hilak 30:

Kanpai-jotze aurrerapenjaia.
17:00etatik aurrera. Orbe
Kardinalaren plazan.

Patxi López



**TXINDURRI
TALDEA
Tokian
tokiko**

URRETA burdindenda

- * Etxea
- * Tresneria
- * Brikolajea
- * Errealak
- * Giltzak
- * Sarrailagintza
- * Kit altzarriak

Zeharbatea 8 Td. 943 17 65 61 ERMUA

Iberikoetan
espezialistak

Mayte

VI Centenario 5 · ERMUA
943 172 412

PRO
arraindegia



**ITSASKIAK
ARRAIN FRESKOAK
ETA IZOZTUAK**

Zubiaurre, 21
943 17 16 96
ERMUA

Palindromo tailerra
Bigara kolektiboaren eskutik

Abenduaren 13an, asteazkena
19:00etan
Lobiano Kulturgunean

Euskal Birusa Elkarteá

GAITU.EUS

Ahots grabazio publikoa Ermuan
Abenduaren 3an, Euskararen Egunean
13:00etatik 14:00etara. Plazan

**BATU DITZAGUN
GURE AHOTSAK,**

TEKNOLOGIARI
EUSKARAZ
IRAKASTEKO

gaitu.eus

Euskal Birusa Elkarteá

GOBIERNO de Navarra / Nafarroako Gobernua

Euskararen erakunde publikoa / Office public de la langue basque

HIRUKO ITUNA / Euskararen gaitu erakundeak

3kn

ermuan bagara

GREMIOEN

GIDA



ITURGINTZA
ITURGINTZA, GAS ETA KALEFAKZIOA
LUIS VALLE

Valle

Bainugelen erakusketa
943 17 15 56

Tailerra
943 17 23 56

Goienkale z/g

PERTSIANAK

ORBE
TOLDOS Y PERSIANAS

- Toldoak
- Ostalaritzarako muntaiak
- Pertsianak
- Instalakuntzak eta konponketak
- Motorizazioa

- Manparak
- Segurtasun pertsianak
- Pertsiana dekoratiboak
- Estoreak
- Eltxo-sareak

Tailerra:
Zearreko Buelta 2
943 17 66 34 - 630 01 13 41
48260 Ermua (Bizkaia)

Erakusketa: Karabixa 1
48260 Ermua (Bizkaia)
943 17 98 60
persianasorbe@gmail.com

ERROTULAZIOA

ROTEK
R Ó T U L O S

Argi errotuloak · 3D letrak · Ibilgailuak
Erakustokiak eta azokak · Formato handiak
Publizitate kanpainak · Led pantailak

943 17 00 36
www.rotekrotulos.com

ROTEK
LED PANTAILAK

ETXETRESNAK

Egaña

ETXETRESNA ELEKTRIKOEN
SALMENTA ETA KONPONKETA

Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08

ITURGINTZA
ITURGINTZA - GASA - BEROKUNTZA

PALACIOS SM

ENPRESA INSTALATZAILE BAIMENDUA
GREMIOEN KUDEAKETA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

San Pelayo 26, behea · Ermua (Bizkaia)
info@palaciosfontaneria.com
www.palaciosfontaneria.com

660 72 95 03 · 659 75 74 59 · 943 53 92 23

ELEKTRIZITATEA



ELECTRICIDAD
BETA_{CB}
ARGIZTAPENA
ELEKTRIZITATEA

- Proiektuak
- Instalazioak
- Erreformak
- Berokuntza
- Gaueko tarifa
- Erradiadore elektrikoak

Diputazioa 11, behea
ERMUA

943 17 65 25
656 70 23 60

Gremioen Gidan publizitatea jarri nahi baduzu...
943 17 93 50 / 688 63 28 76 / drogeten@gmail.com